



Getariako Udala



Getarian bizi diren 70 urtetik gorakoen egoeraren ikerketa

***EGILEA:** Maddalen Irola Larrañaga*

***KOORDINATZAILEAK:** Ane Loidi Leunda eta Mertxe Arregi Berasategi*

***DATA:** 2021eko abendua*

AURKIBIDEA:

1. SARRERA	4
2. KONTZEPTU NAGUSIAK	6
Zahartzaroa	6
Bakardadea	7
Autonomia	7
Mendekotasuna	7
Prestazio ekonomikoak	9
4. PROIEKTUA EUSTEN DUTEN PRINTZPIOAK	10
5. HELBURU ETA HIPOTESIAK	11
5.1. Helburuak	11
5.1.1. Helburu orokorra	11
5.1.2. Helburu zehatzak	11
5.2. Hipotesiak	12
6. METODOLOGIA	13
6.1. Lagina	13
6.2. Ikerketa teknikak	13
7. AZTERKETA KUANTITATIBOA	15
7.1. Elkarrizketatutako pertsona kopurua	15
7.2. Elkarrizketako emaitzak	17
7.2.1. Oinarrizko datuak	17
7.2.2. Gizarte zerbitzuen inguruko datuak	21
7.2.3. Egoera ekonomikoaren inguruko datuak	23
7.2.4. Etxebizitzaren ezaugarriak	28
7.2.5. Osasun eta autonomia datuak	33
7.2.6. Harreman sozialaren eta bakardadearen inguruko datuak	39
8. AZTERKETA KUALITATIBOA	48
8.1. Oinarrizko datuen inguruan	48
8.2. Gizarte zerbitzuen inguruko datuak	51
8.3. Egoera ekonomikoaren inguruko datuak	52
8.4. Etxebizitzaren ezaugarriak	53
8.5. Osasun eta autonomia datuak	55
8.6. Harreman sozialaren eta bakardadearen inguruko datuak	57
9. ONDORIOAK	61
9.1. Hipotesien lanketa	61
9.2. Ondorio nagusiak	63

10. ERANSKINAK	66
10.1. Erabiltzaileei bidalitako gutuna	66
10.2. Galdetegia	68
10.3. Kontaktatu ezin genituen erabiltzaileei bidalitako mezua	79

TAULA ETA GRAFIKOEN AURKIBIDEA

Taulak:

1. Taula: Getariarren inguruko datu demografikoak	13
2. Taula: Elkarrizketatu gabeko pertsonen arrazoiak	15
3. Taula: Bizikidetzaren unitatearen arabera sailkapena	30
4. Taula: Gaixo dauden adinekoek pairatzen dituzten gaixotasunak	34
5. Taula: Adinekoek aisialdian burutzen dituzten jarduerak	43

Grafikoak:

1. Grafikoa: Elkarrizketa lekua	18
2. Grafikoa: Elkarrizketan erabilitako hizkuntza	18
3. Grafikoa: Elkarrizketatutako pertsonen generoa	19
4. Grafikoa: Elkarrizketatutako pertsonen adina	20
5. Grafikoa: Elkarrizketatutako pertsonen egoera zibila	20
6. Grafikoa: Elkarrizketatutako pertsonen sailkapena	21
7. Grafikoa: Adinekoen sailkapena Gizarte Zerbitzuekin izandako harremanaren arabera	22
8. Grafikoa: Zertarako jarri dira adinekoak Gizarte Zerbitzuekin harremanetan?	22
9. Grafikoa: Adinekoen sailkapena gizarte eskubideen eta gizarte babeserako sistemei buruz daukaten informazioaren arabera	23
10. Grafikoa: Diru-iturrien arabera sailkapena	24
11. Grafikoa: Diru-iturrien arabera sailkapena genero desberdintasunarekin	25
12. Grafikoa: Hileroko gastuak ordaintzeko gaitasunaren arabera sailkapena	26
13. Grafikoa: Lagun, bizilagun edo familiako zein kidek ematen dien laguntza ekonomikoa	27

14. Grafikoa: Familiako kideei emandako laguntza ekonomikoa hilabete amaierara iristeko zailtasunak dituztela eta	27
15. Grafikoa: Etxebizitzaren jabetza, mota eta lekuaren arabera sailkapena	29
16. Grafikoa: Etxebizitzen bizi baldintzak	31
17. Grafikoa: Etxebizitzako oztopo arkitektonikoen inguruko datu orokorrak	31
18. Grafikoa: Etxebizitzetako oztopo arkitektonikoak, barnekoak eta kanpokoak bereizita	32
19. Grafikoa: Adinekoen osasun mailaren arabera sailkapena	33
20. Grafikoa: Adinekoen eguneroko jarduerak burutzeko gaitasun maila	35
21. Grafikoa: Adinekoen eguneroko jarduerak burutzeko gaitasun maila. Adinekok eguneroko bizimoduko betekizunetarako ea baliabide materialen beharra duten eta hala bada, zein diren	36
22. Grafikoa: Fisikoki ea aktiboa den eta ea zer egiten duen edota zergatik ez den fisikoki aktiboa	37
23. Grafikoa: Adinekoek familiarekin duten harreman motaren arabera sailkapena	39
24. Grafikoa: Adinekoek familiarekin egoteko duten maiztasun joeraren arabera sailkapena	40
25. Grafikoa: Adinekoek familiarekin telefono bidezko kontaktua izateko duten maiztasun joeraren arabera sailkapena	41
26. Grafikoa: Adinekoek kanpoko sare sozialekin duten harreman motaren arabera sailkapena	41
27. Grafikoa: Adinekoek kanpoko sare sozialarekin egoteko duten maiztasun joeraren arabera sailkapena	42
28. Grafikoa: Adinekoek kanpo sare sozialarekin telefono bidezko kontaktua izateko duten maiztasun joeraren arabera sailkapena	43
29. Grafikoa: Eguneroko arazoan aurrean adinekoek ba al dute heldulekurik?	44
30. Grafikoa: Zein da helduleku edo sostengu hori?	45
31. Grafikoa: Adinekoek beraiengatik kezkatzen diren sententzioak al daukate?	45
32. Grafikoa: Adinekoek sentitzen duten bakardade subjektiboaren inguruko datuak	46
33. Grafikoa: Zein momentutan aborbatzen ditu bakardade subjektibo honek adinekoak?	46
34. Grafikoa: Adinekoak maitatuak sentitzen al dira?	47

1. SARRERA

Zahartzaroaren aroa betetzen dutenak, geroz eta zaharragoak eta geroz eta gehiago dira, eta honek hainbat buruhauste eman dizkio gizarteari dagoeneko.

Elikadura, higiene eta medikuntzaren esparruetan azken urteotan eman den hobekuntzari esker, bizi- itxaropenaren gorakada eman da herrialde garatuetan. Hori dela eta, denbora aurrera doan heinean, gero eta adineko pertsona gehiago dago gizartean eta geroz eta zaharragoa, adineko pertsonatzat 65 urte baino gehiago dituzten pertsonak hartzen direlarik. Gehienetan, pertsona bat adindua dela pentsatzen da duen adinagatik, edota erretiratzeko den momentutik baina garrantzitsua da arlo psikologiko, funtzional eta soziala ere kontuan hartzea, horien arabera ere pertsonen zahartzaroa kontsideratu baitaiteke eta ez du zertan adin kronologikoarekin bat etorri.

Biztanleriaren zahartze prozesua ez da soilik arazo bat, aprobetxatu behar den aukera bat ere bada. XX. mendeko aldaketarik nabarmenetarikoa da, nahiz eta erronka berri bat izan. Hain zuzen ere, zaharren kopuruak gorantz egiten duen une berean, behar berriak asetu behar dira, hauskortasun eta zaugarritasun egoerei aurre eginez.

Gaur egungo egoera alderantzizko piramide batean islatzen da, non gizarte zaharkitu batean aurkitzen garen, jaiotze-tasa txikia delarik eta adinduak geroz eta zaharragoak direlarik, bizi itxaropena ikaragarri handitu delako.

Goran aipatu modura, biztanleriaren zahartze prozesua, ez da bakarrik adinduen kopurua bikoiztu egin delako, biztanleriak izan duen hazkunde nabarmenak eta beste hainbat faktorek ere eragina izan baitute aldaketa honetan, esate baterako, zaintzan izugarrizko eragina izan duen familia modeloaren aldaketak eta baita emakumea lan munduan sartzeak.

Egun, zerbitzu publikoek askoz ere parte handiagoa dute adinekoen arretan, urte askoan, emakumeak soilik izan dira zaintza lan hauek egitera bultzatuak edo derrigortuak eta gainera, etxeko emakumearen langile postua hartu izan dutenak.

Errealitate honen aurrean, Getariako Udalak plazaratutako kezkarri ekin dio. Adinekoen artean pobrezia eta bakardade egoerak direla eta honen inguruko azterketa sakon bat egitea erabaki dute, honela adineko pertsonak ea prestazio ekonomikoaren inguruan duten informazioa egokia eta nahikoa den ere aztertuz.

Kezka hauek direla eta, udalak adineko pertsonen ikerketari hasiera ematea erabaki du, honela 70 urtetik gorako egoera ezagutzuz.

Jakina da bakardadea bizitzako edozein arotan bizi daiteken arren, zahartzaroak bereziki lotura duela honekin, beraz ikerketa honetan bakardadea ere aztertuko den eremuetako bat izan da.

Zahartzaroaren eta bakardadearen arteko harremanen oinarrian gizarte estereotipo batzuk daude. Adinduak bakarrik bizi direla pentsatu ohi da maiz, baina garrantzitsua da bakardadea eta bakartze sentipena bereiztea. Bakarrik bizi diren pertsona gehienak gustura baitaude horrela; harreman ona dute ingurukoekin, bereziki familiarekin.

2. KONTZEPTU NAGUSIAK

Proiektua bere osotasunean ulertu ahal izateko, ondorengo kontzeptuak ulertzea baliagarria izan daiteke.

➤ **Zahartzaroa**

Garapen psikologoak ados daude aro hau gizakion bizi zikloan kronologikoki kokatzeko garaian. Egun, zahartzaroa, 65 urtetik heriotza egun arte doan bizi-zikloaren aro moduan onartuz edo beste modu batera esanez, giza bizitzaren azken zatia, heldutasunaren ondokoa.

Adin kronologikoa kontuan hartuz, gainera, bi zahartzaro mota bereizten dira:

- Hirugarren adina: 65 urtetik 80 urtera bitartekoak.
- Laugarren adina: 80 urtetik gorakoak.

Zahartzeak aldaketak dakartza pertsonaren esparru guztietan. Hori dela eta, adin kronologikoaz haratago, zahartzaroarekin zerikusia duten zenbait adin mota bereizten dira:

- Adin biologikoa: denborak aurrera egiten duen heinean giza organismoak jasaten duen eragingarritasun biologikoaren galerarekin erlazionatzen da.
- Adin psikologikoa: nortasunarekin eta adimen orekarekin erlazionatuta dagoena.
- Adin funtzionala: egunerokotasunera egokitze gaitasunak barnebiltzen ditu. Horren arabera, adinekoa autonomia den edo ez jakin daiteke.
- Adin soziala: gizabanakoak bereganatzen dituen roletan lotuta.

Kontzeptu honekin amaitzeko, azken urteotan garrantzia hartzen ari den beste sailkapen batek ezaugarri kuantitatiboa baino (adina), ezaugarri kualitatiboak hartzen ditu sailkapenerako irizpidetzat. Era berean, norbanakoak bizitzarekiko duen jarrerak bere zahartzaroan eragina duela azpimarratzen duen sailkapena izanik:

- Zahartzaro normala: gaixotasun fisiko eta psikologiko garrantzitsurik gabeko pertsona autonomia.
- Zahartzaro patologikoa: gaixotasun eta gabeziadun pertsona ez autonomia.

- Zahartzaro arrakastatsua: gaixotasun aukera edo gutxitasun maila baxuak eta gaitasun kognitibo nahiz fisiko maila altua dituen pertsona. Ezinbestean, bere bizitzarekiko konpromiso handia duena (kirol jarduerak burutzuz, elikadura zainduz etab.).

➤ **Bakardadea**

Bakardadearen inguruan hitz egiten dugunean, garrantzitsua da bakardade objektibo eta subjektiboa bereiztea. Bakardade objektiboak konpainia faltari egiten dio erreferentzia (objektiboki bakarrik egoteari, alegia). Hautazkoa izan daitekeen neurrian, ez ditu zertan sentimendu ezkorrak sorrarazi.

Bakardade subjektiboa aldiz, bakarrik sentitzen diren pertsonak pairatzen dute. Bakardade objektiboa ez bezala, bakardade subjektiboa beti desio ez den egoera baten ondorio da; sentimendu mingarria suposatzen duena.

Bakardadeari aurre egitea ez da pairatzen duten pertsonen familien erantzukizun soila, gizartearena baizik. Gizartea gaiaren inguruan sentsibilizaturik eta kontzientziaturik egon behar da prebentzioari begira baliabide desberdinak sortzeko. Horren abiapuntua bakardadea ikertzea denez, bakardade objektibo zein subjektiboa ikertuko dira 70 urtetik gorako biztanleriarengan.

➤ **Autonomia**

Egunerokotasuneko oinarrizko ekintzak burutzeko gaitasuna eta norbere inizatibarekin erabaki pertsonalak hartzeko, kontrolatzeko eta aurre egiteko gaitasuna izateari deritzo autonomia. Arauak eta norbere lehentasunak errespetatzen direlarik.

➤ **Mendekotasuna**

Menpekotasuna arrazoi desberdinak direla medio (adina, gaixotasuna, ezgaitasuna etab.) pertsonak bizi duten egoera iraunkorra da. Mendekoak diren pertsonak, beste pertsona baten arreta eta laguntza behar dute eguneroko oinarrizko jarduerak burutzeko (bigarren batena ala gehiagorena). Aipatu berri den autonomiaren aurkakoa izango litzateke.

Adinekoen bizi itxaropena gora doan bezala, haien ezintasun eta menpekotasunak ere erritmo berdintsuan egiten dute gora. Horren ondorioz, 2007ko urtarrilean, Espainiako Legebiltzarrak abenduaren 14ko 39/2006 Legea onartu zuen, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa. Legearen erronka handienetako

bat mendekotasun-egoeran dauden pertsoneri laguntzea eta horien autonomia sustatzea da, herritar gisa dituzten eskubideez oso-osorik gozatu ahal izateko.

39/2006 Legearen arabera, hiru prestazio mota aurki daitezke:

- 1. Familia inguruneko zainketarako prestazio ekonomikoa**, mendekotasuna duen zaintzaile batek bere familia ingurunean zaintzeak dakartzan gastuak ordaintzen laguntzeko.
- 2. Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa**, mendekotasun handiko pertsoneri autonomia handiagoa izaten lagunduko dien profesionala kontratatzeak dakartzan gastuak ordaintzeko.
- 3. Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa**, Eguneko zentroetako eta egoitza pribatuetako zerbitzuen gastuak ordaintzen laguntzeko.

Prestazio hauek jasotzeko, honako baldintza hauek bete behar dira:

- Estatuko lurraldean gutxienez bost urtean bizitzea, eta horietatik bi behintzat eskaera aurkeztu aurreko biak izatea.
- Gipuzkoako Lurralde Historikoan erroldatua egotea eta bertan bizitzea.
- Mendekotasuna duen pertsonatzat baloratua izatea. Balorazioa Gipuzkoako Foru Aldundiak egiten du. Eskaera, aldiz, bizi den herriko udaleko gizarte zerbitzuetan egin behar da.

Behin mendekotasuna baloratutakoan, mendekotasuna duten pertsonak hiru gradutan sailkatzen dira eta gradu bakoitzaren barnean bi maila aurkitzen dira, pertsonak duen autonomiaren eta behar dituen laguntzen intentsitatearen arabera.

1. GRADUA: Mendekotasun ertaina edo tartekoa: pertsonak eguneroko oinarrizko jarduerak burutzeko laguntza behar du, gutxienez egunean behin.
2. GRADUA: Mendekotasun larria: pertsonak eguneroko ohiko ekintzak egiteko laguntza behar du, egunean bi edo hiru aldiz, baina ez du etengabe zaintzaile baten presentzia behar.

3. GRADUA: Mendekotasun handia: pertsonak eguneroko ohiko ekintzak egiteko laguntza behar du behin baino gehiagotan eta pertsona baten laguntza ere behar du ezinbestean eta etengabe.

Hala ere, mendekotasun prestazioez gain, badaude bestelako prestazio ekonomikoak ere, jarraian ikusiko dugun moduan.

➤ **Prestazio ekonomikoak**

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen arabera, une jakin batzuetan edo aldizka pertsonari nahiz bizikidetzaren unitateei ematen zaizkien diru kopuruak dira prestazio ekonomikoak, baldin eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarako 6. artikuluan definitutako funtsezko helburuak lortzera bideratuta badaude edo beste sistema eta politika publiko batzuenak ere badiren helburuak lortzen laguntzen badute. Ildo honi jarraituz, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta Getariako Udalak hainbat prestazio ekonomiko eskaintzen dituzte.

1- Gipuzkoako Foru Aldundiak eskaintzen dituen prestazio ekonomikoak

Foru Aldundiak eskaintzen dituen prestazioak hainbat motatakoak dira. Behar baten edo bestearen arabera, aldundiak aukera zabala dauka behar horiei erantzun bat emateko. Honakoak dira prestazioak: Kotizatu Gabeko Pentsioa, Gizarte Ongizateko Fondoa, Minusbaliatuak Gizarteratzeko Legea eta Mendekotasuna.

- **Kotizatu Gabeko Pentsioa (KGP/PNC)**

Kotizatu gabeko pensioa bizitzeko nahikoa baliabide ekonomikorik ez duten pertsona adindu edo desgaituentzako da. Bi pensio mota daude honen barnean: jubilazioagatik kotizatu gabeko pensioa eta elbarritasunagatik kotizatu gabeko pensioa.

- **Gizarte Ongizateko Fondoa (GOF/FBS)**

Aldizkako prestazio ekonomikoa da, gizarte zerbitzuen osagarria, adina edo ezintasuna dela eta oinarrizko beharrezkoak asetzeko lanik egin ezin eta diru-sarrerarik lortu ezin duten pertsonari ematen zaiena. Bi pensio mota daude honen barnean: zahartasuneko eta ezintasuneko.

- **Mendekotasuna**

Aurrez adierazi bezala, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak autonomia pertsonala sustatzeko eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeko oinarrizko baldintzak arautzen ditu. Honi

loturiko prestazioak dira familia inguruneko zainketarako prestazio ekonomikoa, laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa eta zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa.

2- Eusko Jaurlaritzak eskaintzen dituen prestazio ekonomikoak

Eusko Jaurlaritzak eskaintzen dituen prestazio ekonomikoen artean dago, besteak beste, Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE).

- **Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE)**

Oinarrizko premiei lotutako gastuei nahiz gizarteratze- edo laneratze-prozesuak dakartzan gastuei aurre egiteko behar adinako diru-sarrerak ez dituzten bizikidetzaren unitateetako kideentzako aldi behingo eta jatorri ekonomikoko eskubide subjektibozko prestazioa da, eta Lanbideak kudeatzen du. Honez gain, gutxieneko pentsioa baino baxuagoa dutenek ere jaso dezakete prestazio ekonomiko osagarri hau.

3- Getariako Udalak eskaintzen dituen prestazio ekonomikoak

Udalak eskaintzen dituen prestazio ekonomikoen artean, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL) ditugu.

- **Gizarte Larrialdietarako Laguntza (GLL)**

Ezuste gertaera batek edo aldizkako prestazio ekonomikoen ondoriozko baliabide ekonomiko urriek sortutako larrialdiko egoera ekonomikoak estaltzeko prestazio ekonomikoa da, premiazko gabezia egoerak saihesteko baliabide aringarri modura erabiltzen dena. Egoera horiek une jakin batean edo une desberdinetan gerta daitezke. Eusko Jaurlaritzaren eskumena bada ere, udalek kudeatzen duten prestazioa da.

4. PROIEKTUA EUSTEN DUTEN PRINTZPIOAK

Mendekotasun legean zerrendatzen diren printzipio guztiek eusten dute proiektua eta baita hauen giltzarri izango diren etxez etxeko bisitek ere, erabiltzaileari hurbiltasuna adieraziz. Ondorengoak dira printzipio horiek:

1. Mendekotasun egoeran dauden pertsonetako arreta integratu eta integrala.
2. Pertsonaren beharren balorazioa, ekitatearen printzipioari jarraiki, parekidetasuna sustatzeko.

3. Arretaren pertsonalizazioa, diskriminazio egoeran dauden pertsonak behar duten arreta berezia erantsita.
4. Prebentzio, birgaitze, estimulu sozial eta mentalarekiko neurri egokien ezarpena.
5. Mendekotasun egoeran dauden pertsonak ahalik eta bizitza autonomoena eraman dezaten egoera egokienaren sustapena.
6. Mendekotasun egoeran dauden pertsonen, bere familien eta legearen aurrean ordezkatzan dituen entitateen parte-hartzea.

Mendekotasunak adin kronologikoarekin lotura nabarmena duenez, mendeko pertsonak bihurtzeko aro zaugarrian daudela aurreikus daiteke, horregatik garrantzitsua da prestazio ekonomiko zein adinduentzako zuzenduta dauden zerbitzuen berri jakitea.

5. HELBURU ETA HIPOTESIAK

5.1. Helburuak

5.1.1. Helburu orokorra

- Getarian bizi diren 70 urtetik gorako adinekoen bizikidetzan ezaugarriak aztertzea eta prestazio ekonomikoaren eta adinekoei dagozkien zerbitzuen berri ematea.
- Getarian bizi diren 70 urtetik gorako adinekoek pairatu dezaketen bakardade subjektibo eta objektiboa aztertzea.

5.1.2. Helburu zehatzak

- 70 urtetik gorako Getariarrek Gizarte Zerbitzuekin duten hartu-emana neurtzea.
- 70 urtetik gorako Getariarrek Gizarte Zerbitzuekiko duten ezagutza maila aztertzea.
- 70 urtetik gorako Getariarren burujabetasun ekonomiko maila aztertzea.
- 70 urtetik gorako Getariarren etxebizitza ezaugarriak, oztopo arkitektonikoak kontuan hartuz, aztertzea.
- 70 urtetik gorako Getariarren osasun egoera eta jarduera fisikoa burutzeko joera aztertzea.
- Ikerketaren ondorioz norbanako eta familiako kideren batek Gizarte Zerbitzuetara hurbiltzeko interesa erakutsiz gero, ikerketaren arduradun diren gizarte langileen eta Gizarte Zerbitzuetako oinarrizko gizarte langileen koordinazioa ematea.

5.2. Hipotesiak

- Getariako 70 urtetik gorako adinekoen gehiengoak ez du Gizarte Zerbitzuekin harremanik.
- Getariako 70 urtetik gorako adinekoek ez dute Gizarte Zerbitzuen jardueraren inguruko informaziorik.
- Getariako 70 urtetik gorako adinekoak gastu ekonomikoei aurre egiteko gai dira.
- Getariako 70 urtetik gorako adinekoek zailtasunak dituzte beren egunerokotasunean bakarrik moldatzeko.
- Getariako 70 urtetik gorako adinekoen etxebizitzak ez daude beren beharretara egokituta.
- Getariako 70 urtetik gorako adinekoen osasun maila ona da batzaz beste.
- Getariako 70 urtetik gorako adinekoak asebeteta sentitzen dira duten sare sozialarekin.
- Bakardade subjektiboa Getariako 70 urtetik gorako adinekoen gutxiengoak baino ez du sentitzen.

6. METODOLOGIA

6.1. Lagina

Lagina zehazteko garaian, lehenengo eta behin interesgarria da Eustat-ek argitaratutako azken datuak kontuan hartzea, 2020ko datuak hain zuzen:

1. Taula: Getariarren inguruko datu demografikoak

Biztanleria		0-19 urte bitarte		20-64 urte bitarte		65 urtetik gorakoak	
Gizon	Emakume	Gizon	Emakume	Gizon	Emakume	Gizon	Emakume
1.416	1.414	278	283	891	824	247	307
2.830		561		1.715		554	

Iturria: Eustat

Datuetan ikusten denez, Getariarren %19.58a 65 urtetik gorakoa zen 2020an. Lagina 70 urtetik gorakoa denez 554 horietatik ikerketaren lagina osatzen dutenak zenbat diren biltzea ez da lan erraza izan.

70 urtetik gorako Getariarrak guztira zenbat diren biltzeko, erroldatik atera dira datuak. Adin tarte horretan beraz erroldatuta, **420 pertsona** daude.

6.2. Ikerketa teknikak

Ikerketa honetan teknika desberdinak erabili dira datozen zerrendan azalduko direnak:

- **Ikerketaren helburu eta hipotesien formulazioa.** Ikerketaren hipotesiak formulatu dira.
- **Erroldako datuen arakatzea.** Ikerketaren lagina zenbatekoa zen zehazte aldera, erroldatik bildu ziren lehenik datuak.
- Behin lagina zehaztuta, **gutuna osatu eta elkarrizketatu beharreko pertsona guztiei bidali** zitzaien.
- **Prentsaurrekoa:** Herritarren ikerketaren berri izan zezaten eta ikertzailea ezagutu zezaten, erabilitako beste informaziorako teknika bat prentsaurrekoa izan da.

- Jarraian, **telefono bidez hitzorduak finkatzen** hasi da ikertzailea, etxeetara aurrez adosturiko egun eta orduetan hurbiltzen ahaleginduz. Badira, elkarrizketari uko egin diotenak; alegia, ikerketan parte hartu izan nahi ez dutenak eta honenbestez, arrazoi desberdinengatik jasotako ezezkoak arazorik gabe onartu dira.
- **Elkarrizketa profesionala:** txostena betetzeko behar zen informazio guztia biltzeko erabili da elkarrizketa.
- **Behaketa:** elkarrizketaz haratago, behaketa lanak ere burutu dira. Ezin baita ahaztu behaketaren bidez informazio gehigarri mordoa bildu daitekeela.
- **Aholkularitza:** esku-hartzearen lehen pausuak eman ostean, erabiltzailea zaurgarritasun egoeran edota informazio beharrean antzematekotan aholkularitza lana burutu da (informatzeaz haratago doana), gizarte langilearengana bideratuz elkarrizketatua.
- **Bigarren mezuaren bidalketa:** zenbait kasutan ezin izan da pertsonekin telefono bidez kontaktatu erroldan erreferentziazko zenbakirik agertzen ez zelako edota telefonorik ez dutelako hartu. Gutuna iritsi zaiela kontuan hartuz eta zain egongo zirela pentsatuz, bigarren mezu bat bidaltzea egokia izango litzatekeela pentsatu da, honela beraien zenbakia ez dagoela azalduz eta interesa badute, ikertzailearekin kontaktatzeko aukera emanaz (mezuan telefono zenbakia bidali zitzaien).
- **Gizarte langile desberdinen arteko koordinazioa:** Gizarte Zerbitzuetan adineko pertsonen kasuak eramaten dituen gizarte langilearekin nahiz eremu honetako zinegotziarekin etengabeko komunikazioa mantentzea garrantzitsua izan da. Zerbitzu eta prestazioren bat jasotzeko aukera dutenen kasuan, gizarte langilaren ordutegia eta hitzordua hartzeko prozesua azaldu zaie, honela ondo datorkienean txanda hartzeko aukera eskainiz.
- **Datu guztien bilketa eta analisisia:** bildutako datuak aztertu, alderatu eta ondorio nagusiak ateratzea.
- **Ikerketa lanaren idaztea eta aurkezpena:** Gauzatu den ikerketaren berri emateko eta batik bat ateratako ondorioak plazaratzeko txosten hau idatzi da, ondoren komunikabideen bidez informazio garrantzitsuena eman delarik.

7. AZTERKETA KUANTITATIBOA

7.1 Elkarrizketatutako pertsona kopurua

Elkarrizketatutako pertsona kopuruari dagokionez, 212 pertsona eta 147 etxe elkarrizketatzea lortu dira (elkarrizketatutako batzuk etxe berdinean bizi baitziren). Telefono zenbakiarena izan da arazo handiena, izan ere askorekin ezin izan baita komunikatu, erregistroan emanda zuten telefono zenbakia ez baitzeturren bat gaur egunekoarekin. Horregatik, kontaktatu ezin izan den pertsonen bigarren mezu bat bidali zaie postaz, ikertzailearekin harremanetan jartzeko aukera emanez.

Ikerketan ez dutela parte hartu nahi esan dutenak ere asko izan dira, izan ere batzuk interesik ez zuten eta beste batzuk berriz, beraien burua ondo ikusten dutela oraindik eta prestazio zein zerbitzuren baten beharra izanez gero, momentua iristen denean beraiek jarriko direla Gizarte Zerbitzuekin harremanetan esan dute gehienek, hauek 58 izan dira. Beste askok berriz, ez dute telefonorik hartu eta ez dira ikertzailearekin harremanetan jarri. Adineko jende honek askotan beldurra izaten du ezezagunekin geratzeko edota atea irekitzeko; lehenik bidalitako udaletxeko mezuak lasaitu zituen eta ondoren, baita inkestatzailea herritarra eta honenbestez ezaguna izateak. Etxera joatea nahi ez zutenak ere, aukera izan dute udaletxeko espaziora joateko.

Hainbat pertsona izan dira elkarrizketatu gabe gelditu direnak, hona hemen ondorengo taulan elkarrizketak ez burutzearen arrazoiak:

2. Taula: Elkarrizketatu gabeko pertsonen arrazoiak

ARRAZOIA	PERTSONAK
Telefonoz hitz egitea lortu ez eta beraiek deitu ez dutenak	92
Parte hartu nahi izan ez dutenak	58
Osasunagatik (berea edo familiarrena) parte-hartu ez dutenak	22
Deituko dutela esan eta deitu ez dutenak	17
Getariatik kanpo bizi direnak	8
Egoitzan daudenak	5
Hitzordua zehaztu eta erantzunik eman ez dutenak	2
Ikerketan zehar hil direnak	2
Kanpoan daudenak (oporretan, Getariatik kanpoko etxeren batean...)	2
GUZTIRA	208

Iturria: Maddalenek egina

Taulan ikus daitekeen bezala, telefonoz hitz egitea lortu ez eta bigarren mezua bidali ondoren beraiek ere deitu ez dutenak 92 pertsona izan dira. Hasiera batean beraiekin kontaktatzen saiatu da, ordu desberdinetan deituz, goizez, arratsaldez, eguardi partean. Larunbatetan ere deiak egin dira, jaieguna izanez, jendea etxean aurkitzeko asmoz eta baita eguardi aldera ere, bazkaltzeko orduan gehienak etxean egoten baitira. Baina hauetako askorekin ezin izan da kontaktatu, eroldako zerrendan zenbakiak ez baitzeuden ondo edota jada ez baitziren existitzen. Behin eta berriro saiatu arren (bakoitzari gutxienez 3 aldiz deitu zaio egun eta momentu ezberdinetan), kontaktatzea lortu ez den pertsona horiei bigarren mezu bat bidali zaie, galdetegia erantzuteko prest egonez gero, ikertzailearekin kontaktuan jartzeko esanez eta mezu hori bidali ondoren, herritar batzuk deia egitera animatu dira, batzuk jada zain zeudelako eta beste batzuk berriz, informazio eske (ez zekitelako zerri buruz zen edota baita udaletxean ematen ziren zerbitzuei buruz jakin nahi zutelako) deitu dutelako.

Bestetik, 58 pertsonak ez dute parte hartu nahi izan ikerketan. Kasu hauetan eurekin kontaktuan jarri da inkerstatzailea telefono bidez eta ikerketan parte hartzeko gonbiteari uko egin diote. Jakina denez, inor ez dago behartuta parte hartzera; beraz, kasu horietan, ikerketaren helburua zein den ondo azaldu eta ezezkoa ematen bazuten, ez dela derrigorrezkoa esan, zer moduz dauden galdetu eta edozer behar izatekotan non aurki dezaketen laguntza argituz amaitu dira deiak. Erantzun gehienak, momentuan ondo daudela, ez dutela ezeren beharrik sentitzen eta momentua iritsiz gero, beraiek gerturatuko direla Gizarte Zerbitzuetara izan dira, hala ere bada interesik ez zuela adierazten zuenik ere.

Osasun-arazoengatik parte-hartu nahi izan ez dutenak berriz 22 izan dira, batzuk beraien arazoengatik edo gai ez zirelako esan dute ezetz, beste batzuk berriz, beraien inguruan izan diren osasun konplikazioengatik: bilobaren arazoak, koinatarenak, senarrarenak...

Badira baita, beraiekin kontaktuan jarri eta arrazoi desberdinengatik beranduago, beste momentu batean, deituko zutela esan duten arren, ez direnak berriz kontaktuan jarri inkerstatzailearekin. Kopuru hau 17 pertsonakoa izan da eta arrazoiak desberdinak izan daitezkeela aurre-ikusten da, alde batetik, ahaztu egin zaiela izan daiteke eta bestetik, interesa galdu edota hasieratik interesik ez zutela izan daiteke.

Gainontzeko parte-hartzera animatu ez direnak arrazoi desberdinak izan dituzte. Gaur egun, Getarian errolatuak egon arren, bizitza herritik kanpo egiten dutenak 8 dira. Hauetako lauek konfirmatu dute kanpoan bizi direla, beste lauen informazioa berriz udaletxetik atera da.

Beraien osasuna dela eta 5 egoitza batean daudelako. Beste batzuk, hitzordua zehaztu arren ez ziren udaletxeko galdeketak egiteko espaziora azaldu edota ez zuten etxeko aterik ireki; guztira 6 izan ziren arren, hauetako lauekin berriz deia egin eta elkartzeko aukera izan zen, beste biek berriz ez zuten gehiago erantzun. Heriotza ere eguneroko ogia da eta are gehiago adineko pertsonen kasuan; honenbestez, ikerketan zehar 2 adineko hil dira eta beste bi pertsona herritik kanpo duten etxe batean zeuden.

Hasiera batean kontaktatzeko arazoak izan ziren arren, berriz informazio bilketa egiten saiatu dira udaletxean eta kasu honetan garbi ikusi da askok jada etxeko telefonoa kenduta dutela eta sakelako mugikorrarekin ibiltzen direla, mugikor zenbakiari erantzun diotenak 58 izan baitira.

Telefono ezezaguna hartzeak sortzen duen kezkak ere eragina izan duela esan daiteke, izan ere, batzuk aitortu baitute telefono deia ikusi zutela baina nongoa zen ez zekiten ez zutela hartu; hala ere, behin baino gehiagotan zenbaki bera ikusi ondoren eta mezuan deia jasoko zutela abisatu zitzaenez, hauetako asko deia hartzera animatu ziren, nahiz eta beste batzuk jaramonik ez egin deiari.


7.2 Elkarrizketako emaitzak

Elkarrizketen emaitzak, erabiltzaileak elkarrizketatzeko erabilitako galdetegiaren azpitaletan bereizita plazaratuko dira jarraian, beti ere ehunekoak borobilduta.

7.2.1. Oinarrizko datuak

Oinarrizko datuetan kontuan hartu diren alderdiak grafikoaren bitartez irudikatuko dira jarraian, bertan elkarrizketa lekua, hizkuntza, elkarrizketatutako pertsonaren generoa, adina, egoera zibila eta elkarrizketatutako pertsonen sailkapena azalduko direlarik.


1. Grafikoa: Elkarrizketa lekua



Iturria: Maddalenek egina

Elkarrizketa lekuari dagokionez, ehuneko handi batek, %73ak hain zuzen ere nahiago izan du etxean egitea elkarrizketa, bertan erosoago sentituko zirelako edota baita, etxetik mugitu ezin zutelako ere. Ehuneko 24ak berriz nahiago izan du Gizarte Zerbitzuetan galdetegia burutu, batzuk fisikoki ondo zeudela esan dutelako, beste batzuk berriz, arrazoi desberdinengatik (etxekoa ez den bat bertara sartzerik ez zutelako nahi, Covid19-agatik...). Hala ere, askok zioten berdin ziela non egin elkarrizketa eta kasu hauetan etxean egitera animatu nahiz izan dira, alde batetik beraiei arazorik ez sortzeko eta bestetik, behaketaren bidezko informazio gehigarria jasotzeko aukera izateko.

2. Grafikoa: Elkarrizketan erabilitako hizkuntza




Iturria: Maddalenek egina

Hizkuntzari dagokionez, elkarrizketen %85 euskaraz egin dira, eta %15 aldiz gaztelaniaz. Euskararen garrantzia aipatzea garrantzitsua da atal honetan, izan ere, gehiengo handi batek euskaraz egitea aukeratu duela eta benetan euskararen presentzia handia dela ondorioztatu

daitelako Getariako udalerrian, 70 urtetik gorako adinekoen artean behintzat. Gazteleraz egin duten batzuen kasuan, euskaraz ulertzen duten arren gazteleraz errazago espresatzeagatik, gaztelaniaz egitea nahiago izan dutenak ere topatu dira.


3. Grafikoa: Elkarrizketatutako pertsonen generoa



Iturria: Maddalenek egina

Elkarrizketatutako pertsonen generoari dagokionez, emakumezkoak (%57) gizonak (%43) baino gehiago izan dira, emakume gehiago animatu dira. Bikoteen kasuan, bietako batek egin nahi bazuen galdetegia, gehienetan emakumezkoa izan da animatu dena, bi kasuetan izan ezik. Bakarrik bizi diren pertsonetan berriz, gizonezko gutxiago animatu dira galderak erantzutera emakumezkoak baino, hala ere hau lotua dago herrian alargunek duten generoarekin, emakume alargun gehiago baitago gizonezko alargunak baino. Ordezkarien kasuan ere, emakumeak nabarmendu dira, bai alabak, emazteak edota zaintzaileak. Honezgain, ez da aparteko genero identitaterik duen adinekorik elkarrizketatu.


4. Grafikoa: Elkarrizketatutako pertsonen adina



Iturria: Maddalenek egina

Adinari dagokionez, 2021ean bakoitzak bete dituen edota betetzeko daudenen adina hartu da kontuan, batzuk elkarrizketa egin ondoren betetzen baitzituzten urteak.


5. Grafikoa: Elkarrizketatutako pertsonen egoera zibila



Iturria: Maddalenek egina

Laginaren %58 ezkonduta dago, %33 alarguna, %6 ezkongabea da eta %3 bananduta dago. Orokorrean alargunduta daudenen artean, gehiengoa emakumezkoa izan da. Gehienek alarguntasun pentsioa dute, nahiz eta batzuk erretiro pentsio eta alarguntasunekoa, biak izan. Hala ere, gehiengoa ezkondua dela ikus daiteke.

6. Grafikoa: Elkarrizketatutako pertsona edo pertsonen sailkapena




Iturria: Maddalenek egina

Egia da, adineko pertsona (protagonista) presente egon dela elkarrizketa gehienetan; elkarrizketen %5 batean baino ez baitu egin ordezkarriak. Bestetik, elkarrizketen %10 soilik egin da ordezkariaren konpainian, askok bakarrik egiteko gaitasuna edota gogoia izan baitute. Ordezkarriak elkarrizketa egin duen kasuetan, ordezkarrien gehiengoa emaztea izan da, protagonistak interes falta erakusteagatik edota etxean ez aurkitzeagatik.

7.2.2 . Gizarte zerbitzuen inguruko datuak

Gizarte zerbitzuekin lagina osatzen duten adineko pertsonen hartu-emana eta ezagutza maila aztertzeko, ondorengo emaitza hauek bildu dira. Ezer baino lehen, inoiz Gizarte Zerbitzuetara etorri diren galdetu zaie. Etorri ez direnei, ea inguruko senideren batek Gizarte Zerbitzuekin kontaktua eduki izan ote duen badakiten galdetu zaie jarraian; izan ere, kasu horietan, pertsona bera informatua ez dagoen arren, hurbileko sare sozialean Gizarte Zerbitzuen berri dutela jakitea garrantzitsua da. Beraz, emaitzetan ezezko gisa agertzen diren kasuetan ez pertsona bera, ez hurbileko inor (berak dakiela, gutxienez) ez da Gizarte Zerbitzuetan sekula egon. Baiezkoa erantzun dutenen artean, argitu beharra dago, kasu batzuetan pertsona bera bere mesederako egon dela Gizarte Zerbitzuetan, baina beste askotan Gizarte Zerbitzuetan beste norbaitengatik egon dela (gurasoak, anai-arrebak, lagunak...).


7. Grafikoa: Adinekoen sailkapena Gizarte Zerbitzuekin izandako harremanaren arabera



Iturria: Maddalenek egina

%48 ez da inoiz Gizarte Zerbitzuetara joan. Beste %46a aldiz noiz edo noiz joan da, nahiz eta informazioa edota prestazio nahiz zerbitzuak beste batentzat eskatu, bai gurasoentzat, baita gertuko kide batentzat. %5aren kasuan, pertsona bera joan ez den arren, bere inguruko familia edo lagunak berarentzat informazioa eskatzera joan dira.

8. Grafikoa: Zertarako jarri dira adinekoak Gizarte Zerbitzuekin kontaktuan?




Iturria: Maddalenek egina

Gizarte Zerbitzuekin kontaktuan jarri diren adineko gehienak, %46, adinekoentzako zerbitzuei buruz informatzeko izan da. Hemen kontuan hartu behar da, goran aipatu modura, batzuk ez direla informatu prestazio zein zerbitzuez norberarentzako, baizik eta familiako kideren batentzat laguntza eske joandakoan jasotako informazioari egiten die erreferentzia, nahiz eta elkarrizketatuarentzat informazio eske joan direnak ere izan diren. Dependentzia balorazioa

egiteko zerbitzu hau aprobetxatu dutenak ere asko izan dira, %26a, ondoren diru-laguntzak jasotzeko edota kotxerako elbarrituaren txartela lortzeko.

Telealarmaren berri informatzera oso adindu gutxi joan dira. Beste arrazoi batzuegatik joan direnak ere gutxi izan dira, jubilatuen soziedadeko kontuei buruz hitz egitera esaterako. Prestazio ekonomikoaren inguruko informazioa jasotzera berriz %18a joan da, batzuk etxerako langilea hartzeko laguntzak behar izan dituztelarik, beste batzuk berriz gurgildun aukia, ohe-artikulatua, eguneko zentroa... ordaintzeko diru-laguntzak behar zituztelako.

9. Grafikoa: Adinekoen sailkapena gizarte eskubideen eta gizarte babeserako sistemari buruz daukaten informazioaren arabera



Iturria: Maddalenek egina


Gizarte eskubideen eta gizarte babeserako sistemari buruz duten informazioari dagokionez, informazio egokia eta nahikoa %6ak soilik du. Informaturik dauden asko adinekoen seme-alabak dira, gazteagoak direnez errazago informatu baitira, hala ere badira adineko batzuk ere informazio hau dutenak, batez ere bere garaian beraien gurasoekin Gizarte Zerbitzuetan ibili zirenak izan direlarik. %36ak ez dauka nahiko informazio eta %58ak, hau da, gehiengo handi batek ez dauka inolako informaziorik prestazio ekonomikoaren inguruan.

7.2.3. Egoera ekonomikoaren inguruko datuak

Egoera ekonomikoa aztertzeko garaian pertsona bakoitzak dituen diru-iturriak ezagutzea ezinbestekoa da. Ondorengo datuak oso esanguratsuak dira, eta azterketa kualitatiboan

plazaratuko den informazio asko ematen dute zeharka. Jarraian ikus daitezke zeintzuk diren aztertuak izan diren pertsonen diru-iturri nagusiak:


10. Grafikoa: Diru-iturrien araberako sailkapena



Iturria: Maddalenek egina

155 pertsonak erretiro pentsioa kobratzen dute. Hemen ikus daiteke elkarrizketatu diren pertsonetatik %70ak jubilazio pentsioa duela. Jubilazio pentsioa soilik duten gizonezkoak 77 dira, emakumezkoak aldiz, 47.

11. Grafikoa: Diru-iturrien arabera sailkapena genero desberdintasunarekin



Iturria: Maddalenek egina

Alarguntasun pentsioa berriz, 61 pertsonak dute; alarguntasun pentsioa soilik kobratzen dutenak 16 dira eta guztiak emakumeak dira, alarguntasun pentsioaz gain jubilazio pentsioa kobratzen dutenak berriz 39 emakume eta 6 gizon dira. Hau da, alarguntasun pentsioa kobratzen dutenetatik %90 emakumeak dira. SOVIa kobratzen dutenak 14 dira, guztiak emakumezkoak.


Ezgaitasun pentsioa kobratzen duten 9 pertsona izan dira elkarriketatuen artean (5 gizonezko eta 4 emakumezko). Pentsiorik kobratzen ez dutenak berriz, 14 pertsona izan dira, gizonezko bat eta 13 emakumezko. Lan soldata dutenak 4 dira, normalean baserri inguruakoak edota itsasoan lan egiten duten familiako adinekoak dira lan soldata dutenak, hala ere badira jatetxeren batean atzeko lanak egiten dituztenak ere.

Amaitzeko, badira bestelako diru-sarrerak dituztenak, 28 zehazki esanda, hauetatik 22 alokairuagatik, baina baita badira bestelako negozioak dituztenak ere, Getaria bezalako herri batean esaterako, itsasontziak dituztenak eta honenbestez, bertatik dirua ateratzen dutenak.

Goiko grafikoa, esan bezala, zenbait gai aztertze oso interesgarri eta adierazgarria den arren, egonkortasun ekonomikoa aztertze ez da nahikoa. Azken batean, posible da diru-sarrerarik ez duen adineko bat bere bikotearekin bizi eta izugarritzko ondasun eta baliabide ekonomikoak izatea. Kontrakoz, jubilatu pentsio minimoa izanik, familia oso bat aurrera atera ezinean dabilenik ere

badago. Beraz, elkarbizitza unitateko diru-sarrerak kontuan hartuz, hilabete bukaerara nola iristen diren galdetu zaie.


12.Grafikoa: Hileroko gastuak ordaintzeko gaitasunaren arabera sailkapena



Iturria: Maddalenek egina

Galdetegia burutu dutenen ehuneko ia hiru laurdenak, %74ak, hileroko gastuak ordaintzera erraz iristen direla dio. Besteen artean, zailtasun maila desberdinak daude, %24ak zailtasunak izan ohi dituela esan du, %2ak berriz nahikoa larri ibilitzen dela; hala ere, bi hauen arteko desberdintasuna txikia izan daiteke, oso subjektiboa baita. Pertsona bakarra izan da ez dela iristen aitortu duena. Hala ere, kontuan izan behar da emaitza hauek ez direla oso objektiboak, norberak bere erara pertzibitzen baititu ezinak eta larritasunak.

13. Grafikoa. Lagun, bizilagun edo familiako zein kidek ematen dien laguntza ekonomikoa.




Iturria: Maddalenek egina

Grafiko honetan argi ikusten den moduan, aldez aurretik aipatu modura, %84ari inork ez dio laguntzarik ematen. 25 pertsoneri, hau da %11 bati seme-alabek ematen die. Pertsona bati, (%0,5) anai- arrebek eta beste bederatzik berriz, bestelako diru laguntza ekonomikoa jasotzen dituzte, udaletxearen diru-laguntzak esaterako.

Elkarrizketatutako adinekoen artean zenbatek duten laguntza ekonomikoa eskatzeko beharra azaldu ostean, garrantzitsua da adinekoek beraiek nori laguntzen dioten ekonomikoki azaltzea, ondorengo grafikoak argi azalduko ditu datuak, izan ere, datuak aldatu egiten dira.

14. grafikoa. Familiako kideei emandako laguntza ekonomikoa hilabete amaierara iristeko zailtasunak dituztela eta.



Iturria: Maddalenek egina


Ehuneko ia 60ak ez die beraien ingurukoei dirurik ematen hilabete amaierara iristeko zailtasunak dituztela eta. %11ak berriz dirurik ez, baina elikagaiak eman edota etxean mantentzen dituzte. Beste %20 batek, beraien seme-alabei ematen die dirua. Bilobei, ahizpa/anaia/neba/arrebei edota besteei dirua ematen diena berriz, oso kopuru txikia da.

7.2.4. Etxebizitzaren ezaugarriak


Etxebizitza %87 batean erabiltzailearena berarena da, familiakoen edota utzitako etxe batean bizi direnak 21 dira (%10) eta alokairuan bizi direnak berriz, inkesta burutu duten 7 adineko baino ez dira izan, %3a. Etxebizitza motari dagokionez, pisuak izan dira gehien bisitatu diren etxebizitza motak (192 pisu zehazki), 11 baserri eta gainerakoak 9 txaletak izan dira. Etxebizitzaren kokalekua gehienbat urbanoa izan da (%91), zonalde erdi urbanoan (%4) eta landa eremuan (%5). Aipatu berri diren ehunekoak ondorengo grafikoetan azaltzen dira argiago.

15.Grafikoa: Etxebizitzaren jabetza, mota eta kokalekuaren arabera sailkapena.


Norena da etxebizitza?



Etxebizitza mota:



Etxebizitzaren kokalekua:



Iturria: Maddalenek egina

Bizikidetza unitatearen berri galdetzeko garaian, erantzuna oso anitza izan da. Egia da, ikusiko duzuen legez, bikotearekin bizi diren adineko pertsonak osatzen dutela nabarmen bizikidetza unitate ohikoena, baina beste hainbat egitura desberdin ere topatu dira, ondorengo taulan agertzen direnak.


3. Taula: Bizikidetza unitatearen araberako sailkapena

BIZIKIDETZA UNITATEA	KOPURUA
Bikotearekin	114
Bakarrik	53
Senar/emazte eta seme/alabekin	4
Senar/emaztea eta anai/arrebekin	2
Anai/arrebekin	7
Seme/alabekin	15
Seme/alabekin, erraina/suia eta bilobekin	10
Zaintzailearekin	6
Lagunekin	1

Iturria: Maddalenek egina

Etxebizitzaren egoera ebaluatzeko irizpide desberdinak hartu dira kontuan; bakoitza “egokia”, “hala nolakoa” eta “ez egokia” bezala baloratuz. Emaitzak hauexek izan dira:


16. Grafikoa: Etxebizitzaren bizi baldintzak



Iturria: Maddalenek egina

Etxebizitzako baldintzak neurtzeko beste irizpide garrantzitsu bat oztopo arkitektonikoen presentzia edo presentzia eza izan da. Etxebizitzetako %63a erabat egokituta dago (134 etxebizitza), gainerako %37ak berriz oztopo arkitektonikoak dituzte (78 etxebizitzak).


17. Grafikoa: Etxebizitzetako oztopo arkitektonikoen inguruko datu orokorrak



Iturria: Maddalenek egina

Jarraian, aurkitutako oztopoak zein diren eta barnekoak ala kanpokoak diren zehatzago azaltzen dituen grafikoa:

18. Grafikoa: Etxebizitzetako oztopo arkitektonikoak, barnekoak eta kanpokoak bereizita.



Iturria: Maddalenek egina

Nahiz eta ondoren aipatzen diren oztopoak ere ikerketan kontuan hartu diren, grafikoak aurkitutako oztopoei soilik egiten die erreferentzia, grafikoan azaltzen ez direnak, atal horietan oztoporik topatu ez direnak izango lirateke.

Barneko oztopoetan, gehienetan “komuna” izan da arazoak sortu dituenak, 10 pertsonak aipatu baitute, bestetik 9 pertsonak “etxe barruko eskailerak” ere aipatu dituzte eta etxe barruko eskailerak, korridorea, ohearen egokitasuna, komuna eta etxe barruko koskak hartu dira kontuan. Pertsona banak berriz, koxka eta korridorearen aipamena egin dute.


Kanpoaldeko oztopoen artean 3 oztopori erreparatu zaie: eskailerak, koskak eta aldapa. 51 pertsona, %23, eskailerengatik kexatu dira, izan ere etxe asko zaharrak direnez edota bere momentuan ez zitzaizenez igogailurik jarri, orain arazoak dituzte. Beste askotan, nahiz eta igogailua eduki, arazoa igogailua baino lehenago dauden eskaileretan dago, izan ere gurgildun aulkiarekin joanez gero edo zailtasunak izanez gero, aurrengo eskailera gutxi horiek ere ezin baitituzte igo. Bestetik, koxka txikiak ere badituztenak badira, 7 pertsona, honek zailtasunak sortzen dizkielarik etxera igotzeko. Azkenik, etxera sartzeko aldapa dutenak ere badaude, aldaparen desnibelagatik zailtasunak izaten dituztelarik igotzeko eta hauek elkarrizketatutako guztietatik 5 izan dira.

Etxebizitzaren ekipamendua lantzeko, egunerokoan etxean zerbait faltan botatzen duten galdetu zaie. %97ak beharrezkoa guztia duela adierazi du, 6 pertsonak adierazi dute zerbaiten falta dutela; hauek igogailu falta, mikrouhin labea, grua bat edota interneta izan dira.

7.2.5. Osasun eta autonomia datuak

Hona hemen lehenik eta behin, osasunari buruz galdetzean adinekoek emandako erantzunaren sailkapena adierazten duen grafikoa. **Adinak eragindako hezurretako mina, osasun egoera ontzat hartu da**, beraiek hala adierazi dutelako eta hezurretako mina pairatuagatik ere, egunerokotasuneko jarduerak eta ariketa fisikoa egitea ez diela oztopatzen ikusi delako.

19. Grafikoa: Adinekoen osasun mailaren araberako sailkapena



Iturria: Maddalenek egina

Sarreran esan modura, adinarekin bat dator osasun galera. Ondorioz, adinarekin lotutako gaitasun galera adineko guztiengan behatu da “ondo”, “hala moduzkoa” eta “eskasa” aukeren artean aukeratuz; noski, elkarrizketatzaileak ere balorazioa egin duelarik. Gehienetan bat etorri da emaitzekin eta ez da beraz arazorik egon. Emaitzak goiko grafikoan daude ikusgai, adinekoen %74ak osasun maila altua duela esan daitekeelarik, aldez aurretik aipatu modura, hezurretako minak beraien egunerokoa eta ariketa fisikoa egitea galarazten ez dien bitartean, osasun egoera ontzat hartu da. %24ak berriz, hala moduzko osasuna duela esan du eta %2ak berriz, eskasa.

Osasun fisikoagatik galdetu zaienean, %26-ak (36 emakumek eta 20 gizonek) ezer ez duela aipatzeko edota ondo dagoela esan du, osasun psikologikoagatik galdetzean berriz, kopuru hau handiagoa izan da, ia %80ak (95 emakumek eta 73 gizonek) esan baitu ondo dagoela.

Adineko pertsonak izaten dituzten ohiko arazoak ere azaldu dira galdetzerakoan: ohikoa baino entzumen arazoak gehiago dituzten 23 pertsona azaldu dira, hauek aparaturen bat ibiltzen dutelarik, bistaren arazo handiren bat berriz 16 pertsonak dute, nahiz eta betaurrekoak beraietako askok erabili; tentsioaren aipamena ere %8 batek egin du; askok operazioak ere izan dituzte, hala ere hau aipatu dutenak 22 pertsona izan dira; bihotzeko arazoak dituztenak berriz 32 pertsona dira, %15a, arritmia, bihotzeko aparatoak, Sintrone... aipatu dituztelarik.

Protesiak ere eguneroko ogia dira adineko pertsonetan eta elkarrizketatutakoen %9ak aipatu du protesiren bat (edo bat baino gehiago) dutela beraien gorputzean. Aldiz, desgasteak dituela %7ak bakarrik aipatu du (askok garrantziarik eman ez dien arren).

Galerak (fisikoak nahiz psikologikoak) dituztenengan zein gaixotasun dituzten identifikatzen saiatu da ikertzailea. Jarraian dagoen taula ikusteko orduan kontuan izan behar da bakar batzuek gaixotasun bat baino gehiago sufritzen dutela. Taulan agertzen diren gaixotasunez gain, mendekoa (galera fisikoen eraginagatik) den pertsona batekin ere elkartu da ikertzailea.

4. Taula: Gaixo dauden adinekoek pairatzen dituzten gaixotasunak

GAIXOTASUNAK		KOPURUA	EHUNEKOTAN
Fisikoak	Minbizia	14	%6
	Iktusa	10	%5
	Artrosis	9	%4
	Ernia	8	%4
	Arnas aparatuko arazoak	8	%4
	Diabetes	5	%2
	Tiroides	5	%2
	Tumorea	5	%2
	Estenosia	3	%1
	Fibromialgia	3	%1
	Osteoporosis	3	%1
	Kataratak	3	%1


Psikologikoak	Depresioa	12	%5
	Dementia	7	%3
	Antsietatea	6	%3
	Alzheimerra	3	%1

Iturria: Maddalenek egina

Ezinezkoa izan da gaixotasun guztiak aipatzea, lista amaigabea litzatekeelako bestela. Min fisikoa, hezurretako mina eta protesia dira adineko gehienek pairatzen dituztenak. Hezurretako mina eta min fisikoaren taldean sartu dira diagnostikorik ez eta mina sentitzen dutenen sintomak.

Osasun egoera honetan, egunerokotasuneko jardueretan zer moduz moldatzen diren bildu nahi izan da:

20. Grafikoa: Adinekoen eguneroko jarduerak burutzeko gaitasun maila



Iturria: Maddalenek egina

Grafiko honek adinekoek duten gaitasun maila neurtzen du. Hau da, azterketa kualitatiboan zabalago azalduko den arren, adinekoei gai diren ala ez galdetu zaie, ez ordea egiten duten ala ez. Galdera oso desberdina da eta emakume zein gizonezkoen artean azken galderak ezberdintasunak nabarmentzen ditu. Bertan ikus daiteke zailtasun handienak etxeko-lanetan eta


erosketak egitean daudela, errazena egiten dutena berriz, medikazioak hartzea eta telefonoa erabiltzea dira.

Eguneroko jardueretan laguntza bat edo beste behar duten pertsonak 47 izan dira (%22), bakoitzak egunaren momentu desberdinetarako laguntza behar dutelarik. 7 pertsonak aldiz egun osorako laguntza behar dutela aipatu dute.


Giza baliabideak ez ezik, baliabide materialak ere oso erabilgarriak izaten dira zenbait gabezia eta zailtasunen aurrean. Gure laginean gehien erabiltzen direnak ohe artikulua (73 pertsonak) eta bainugelako osagarriak (65 pertsonak dute) izan dira, batzuek behar dutelako eta beste batzuk egoera aurreikusi eta beharra sortu aurretik jartzera animatu direlako. Gutxien erabiltzen direnak berriz, gurpildun aulkia (8 pertsonak) eta komunikazio tresnak (17 pertsonak) dira.

21. Grafikoa: Adinekoen eguneroko jarduerak burutzeko gaitasun maila. Adinekoen eguneroko bizimoduko betekizunetarako ea baliabide materialen beharra duten eta hala bada, zein diren.

Baliabide materialak behar ditu?



Nolako baliabide materialak behar ditu?




Iturria: Maddalenek egina


Osasun mailarekin erabat loturik dagoen beste faktore bat ariketa fisikoa gauzatzeko joera da. Hau neurtzeko, lehenik eurei pertsona fisikoki aktiboak diren galdetu zaie. Baietz bazioten, horretarako zer egiten duten galdetu zaie; ezetz esanez gero, ea zergatik ez galdetu zaie.

22. Grafikoa: Fisikoki ea aktiboa den eta ea zer egiten duen edota zergatik ez den fisikoki aktiboa


Fisikoki aktiboa da?



BAI eta ondorengoa egiten du



EZ, ondorengoatik



Iturria: Maddalenek egina

Jarraian ikus daitekeen bezala, %78ak fisikoki aktiboa dela dio, zehazki esanda 162 pertsonak diote. Fisikoki aktiboak diren horietatik %78ak oinez ibiltzera joaten dela dio. Baratzara, ehizara edota arrantzara joaten direnak berriz, %14a dira. Bizikleta (estatikoa edota betiko bizikleta) edota Spinning egiten dutenak, pertsona aktibo horietako %11 dira, gainontzeko kirolak egiten dituztenak berriz beste %11 bat izango lirateke, kirol hauen artean Yoga, Pilates, gimnasia desberdinak eta pelota izango liratekeelarik.

Ettxeko-lanak egiten dituztenak %13a dira, mantenuan aritzen direnak berriz %6a, hauek kirol gisa identifikatuak ez diren arren, fisikoki aktiboak izaten laguntzen dietela azaldu dute adinekoek. Honekin lotuak zaintza lanak egongo lirateke, %3a delarik kopuru hau eta %2a okupatzen dutenak igeriketa edota mendira joatea ere izango lirateke.


Fisikoki aktiboak ez direnak berriz 48 pertsona izan dira, %26a eta fisikoki aktiboak ez diren horietatik 40 pertsonak ezin dutelako, 10 pertsonak gogo falta dutelako eta 5ek berriz, Covid19-arekiko beldurrarengatik; batzuk arrazoi bat baino gehiagotatik ez dira aktiboak.

Gaixotasunagatik jarduera fisikorik egin gabe geratzen direnak gutxi dira, izan ere, medikuek gehienei ibiltzea aholkatzen diete nahiz eta protesia edota hezurretako minarekin ibili. Aipatzekoa da momentuan edozein ezintasunengatik ariketa fisikoa burutzerik ez dutenak ez direla kontuan hartu, izan ere momentu puntual bateko egoera delako eta egonkortasunera itzulitakoan berriro ere kirola egiten hasiko dela suposatzen delako.

7.2.6. Harreman sozialaren eta bakardadearen inguruko datuak

Harreman sozialak oso garrantzitsuak dira gizabanakoaren ongizate pertsonalean, horregatik ezinbestean gai honen inguruko lanketa egin beharra zegoen beste behin ere. Jarraian, esparru honi buruzko galderak eta emaitzak daude, harreman sozialen baitan familia zein bigarren mailako sare sozialei erreparatu zaielarik. Honez gain, bakardadearen inguruan ere jardun da. Izan ere, honek harreman sozialarekin erlazio estua du eta adinean goraka goazen heinean bakardade sentimendu hori ere areagotzen doa.


23. Grafikoa: Adinekoek familiarekin duten harreman motaren arabera sailkapena



Iturria: Maddalenek egina

Grafikoan borobilduta agertzen den arren, familiarekin harreman ona dutela erantzun dutenek ia %97a osatzen dute errealki (205 pertsona). Aldiz, hala moduzko harremana dutela erantzun dutenek %3 (6 pertsona). Pertsona batek adierazi du familiarekin harreman txarra duela. Harreman motaz gain, familiarekin eta familiaz kanpoko sare sozialarekin egoteko maiztasuna ere neurtu nahi izan da, bai aurrez aurrekoa eta baita telefono zein ordenagailu bidezkoa ere, ondorengo grafikoetan islatuta agertuko direnak.


24. Grafikoa: Adinekoek familiarekin egoteko duten maiztasun joeraren araberako sailkapena



Iturria: Maddalenek egina

144 dira egunero familiarekin kontaktu zuzena izaten dutenak (%68), 50 asterokoan egoten direnak, 12 pertsona hilabetean behin elkartzen direnak eta 5 familia urtean behin ikusten duenak, bestelako erantzunen bat eman duena aldiz, pertsona bakarra izan da. Familiari erreferentzia egitean, bikotekide eta bizikidetzaren unitate ez direnen kasua izan da. Alegia, etxetik kanpo bizi diren familiakoak zein maiztasunekin ikusten dituzten jakin nahi izan da.


25. Grafikoa: Adinekoek familiarekin telefono bidezko kontaktua izateko duten maiztasun joeraren arabera sailkapena



Iturria: Maddalenek egina

143 pertsonak egunero hitz egiten dute beraien famili artekoekin telefono zein *Whatsapp* aplikazio bidez. Astero hitz egiten dutenak 49 pertsona dira. Besterik atalean sartuko liratekeenak “behar denean” “egun eta momentu guztiak ez dira berdinak”, hau da, aste batzuetan egunero eta beste batzuetan berriz inoiz ere ez, beharraren arabera erantzun dutenak dira, guztira 11 pertsona.

26. Grafikoa: Adinekoek kanpoko sare sozialekin duten harreman motaren arabera sailkapena




Iturria: Maddalenek egina

174 pertsonak familiaz kanpoko sare sozialik badutela erantzun dute. 9 pertsonak zer edo zer, kasu honetan, lagunak izan badituztela baina ez direla beraiekin egoten adierazi dute. 29 pertsonak aldiz, ez dutela familiaz kanpoko sare sozialik adierazi dute.

Ondorengo grafikoak zein maiztasunekin egoten diren familiaz kanpoko sare sozialarekin kontaktuan azalduko du:

27. Grafikoa: Adinekoek kanpoko sare sozialarekin egoteko duten maiztasun joeraren arabera sailkapena




Iturria: Maddalenek egina

72 pertsonak egutero egoten direla azaldu dute. Hauek normalean kafea hartu edota ariketa fisikoa egiteko egutero elkartzen direla erantzun dute, eta baita txikiteoan aritzen direnak ere. 57 pertsona berriz astero elkartzen dira, pintxopoteen kasuan eta baita elkarteetako afariak egiteko edo asteburuetako planak egiteko ere. Hilero elkartzen direnak 21 pertsona izan dira. Hauetako gehienak, elkarteetako afariak dira.

“Besterik” atalean sartuko lirateke, biloben zaintza dela eta kanpoko sare sozialarekin egoteko denborarik ez dutenak, lagunak badituztenak baina beraiekin egoteko gogorik ez dutenak, gaixotasunagatik aukera hori ez dutenak... hauek 19 izan direlarik.

28. Grafikoa: Adinekoek kanpo sare sozialarekin telefono bidezko kontaktua izateko duten maiztasun joeraren araberrako sailkapena



Iturria: Maddalenek egina

Goiko grafikoak zenbateko maiztasunarekin komunikatzen diren kanpoko sare sozialarekin azaltzen du, atal honetan, asko egon dira "behar denean erantzun dutenak". "Besterik" taldean sartuko lirateke horiek eta baita egurnero gelditzeko ordua eta lekua zehaztuta dutenak eta telefonozko kontakturik ez dutela izaten azaldu dutenak ere.

Adinekoek aisialdian burutzen dituzten jardueren berri ere galdetu zaie. Kasu honetan, erantzunak oso ezberdinak izan dira, denbora pasatzeko modu desberdin asko baitaude hain zuzen ere, ondorengo taulak argi azaltzen ditu.

5. Taula: Adinekoek aisialdian burutzen dituzten jarduerak

JARDUERAK	Perts. kop.
Ibili / Paseatu	64
Familia / Lagunartean egon	17
Irakurri	47
Denbora pasak egin	24
Telebista ikusi	62
Eskulanak egin	31
Zinea ikustera joan / Musika entzun / Ekintza kulturalak / Koroa	17
ONGak / Boluntariotzak	3
Bidaiatu / Egun pasak egin	12
Mendira joan / Perretxikota / Baratzara / Ehizara	13
Txibita / Itsasora / Lapetara joan	14
Kirolak ikusi: pelota, futbola, bizikleta...	7
Egunkaria irakurri	6
Kartetan jolastu	5


Elizara / Mezetara joan	5
Sukaldata	5
Hondartzara joan	6
Idatzi / Margotu	6
Ordenagailuan / Mugikorrean ibili	12
Mantenua	17
Deskantsatu	8
Oroitzapenak ikusi	1
Soziedadean egon / Jana eta edana / Kafea hartzera joan	15
Irratia entzun	4
Kirola praktikatu: Yoga, gimnasia...	7
EPA batera joan	1

Iturria: Maddalenek egina

Kasu honetan pertsona bakoitzak zer egiten duen zehaztea zaila izan da, izan ere, pertsona bakoitzak gauza bat, bi edo hiru gehiago egiten dituelako eta denak sailkatzea ez delako erraza.

Gustoko ekintzei buruz galdetu ondoren, bakardadera jo da, bakardade subjektibo eta objektibora. Eguneroko arazoan aurrean adinekoek heldulekuak zein diren ondorengo grafikoetan ikus daitezke.

29. Grafikoa: Eguneroko arazoan aurrean adinekoek ba al dute heldulekurik?




Iturria: Maddalenek egina

Gai objektiboaren inguruan lehenik eginiko galdera ea eguneroko arazo ala beharren aurrean ba ote duten laguntzen duten inor izan da, %96ak beti duela norengana jo erantzun du, %4ak (8 pertsonak) "batzenetan" erantzun dute eta pertsona batek inoiz ez duela jakiten norengana jo azaldu du. Hurrengo galdera, zein den sostengu nagusia izan da, %94ak familia esan du (204

pertsonak), 6 pertsonak lagunak, 4 pertsonak zaintzailea eta beste 4 pertsonak beste aukeraren bat aipatu dute, hauek bizilagunak izan direlarik. Batzuetan kasurik egiten ez diotela, 2 pertsonak adierazi dute, 8 pertsonak aldiz batzuetan eta komeni zaienean egiten diotela kasu esan dute.


30. Grafikoa: Zein da helduleku edo sostengu hori?



Iturria: Maddalenek egina

Adineko pertsonen sostengu nagusia familia da, zenbaiten kasuan lagunek ere paper garrantzitsua betetzen dutelarik eta gutxiengo baten kasuan zaintzaileak. “Besterik” atalean sartuko lirateke, sostengu nagusirik ez dutela sentitzen duten pertsonak edota sostengu nagusienak animaliak direla dioten kasuak.


31. Grafikoa: Adinekoek beraiengatik kezkatzen diren sentazioa al daukate?



Iturria: Maddalenek egina

Bakardade subjektiboari buruz galdetzean, bakarrik sentitzeari buruz alegia, ateratako emaitzak hauexek dira:


32. Grafikoa: Adinekoek sentitzen duten bakardade subjektiboaren inguruko datuak



Iturria: Maddalenek egina

Bakardade objektibo eta subjektiboaren emaitzak desberdinak dira. Objektiboki bakarrik ez dauden arren (sostengu soziala dutelako), bakardadeak dakarren tristura sentitzen dute zenbaitek. Hain zuzen, %28a bakarrik sentitzen da batzuetan eta %2a berriz beti. Bakardade sentimendu hau zein momentu ala gertakizunen aurrean jasaten duten azalduko du hurrengo grafikoak.

33. Grafikoa: Zein momentutan abordatzen ditu bakardade subjektibo honek adinekoak?




Iturria: Maddalenek egina

Erantzun oso desberdinak irten dira ulergarria denez. Izan ere, bakoitzak oso pertsonalki bizi du bakardadea. Zenbait pertsonak erantzun bat baino gehiago eman dituzte; momentu batean baino gehiagotan (ala arrazoi bat baino gehiago dela eta) sentitzen direlako bakarrik. Besterik aukeraren baitan markatutakoak, gehienetan, arrazoi zehatz bat baino, bakardadea momentu aldakorretan datorkiela adierazi dute. Gainerakoz, kezka batek abordatzen dituenean eta bakardade objektiboko momentuak bereiziki hauskorak direla jakinarazten dute datuek.

Bakardade sentimenduari aurre egiteko asmoz, gehiengoak telebista ikusteko (%30), kalera irteteko (%19) edota irakurtzeko (%14) joera du, nahiz eta grafiko batean azaltzeko zaila den aukerak eta erantzunak anitzak izan direlako. Orokorrean okupatua mantenduko dituen zerbait egiten dutela diote. Familiarekin edota lagunekin kontaktua izatea ere egoera honetako metodo egoki gisa ikusten dute batzuk edota baita paseatzera joatea, irratia entzutea, etxeko lanak egitea, denbora pasak edo eskulanak eta mezetara joatea ere, besteak beste. Hala ere, bakarrik sentitzen diren horietatik %25ak egoera horri aurre egiteko ez du ezer berezirik egiten.

Atal honi, eta azterketa kuantitatiboari, luzatutako galdera orokor batekin emango zaio amaiera. Hain zuzen ere, adineko pertsonak maitatuak sentitzen al dira?

34. Grafikoa: Adinekoak maitatuak sentitzen al dira?



Iturria: Maddalenek egina

Gehiengoa maitatua sentitzen da, 6 pertsonak adierazi dute batzuetan soilik sentitzen direla maitatuak eta 3 pertsonak inoiz ez direla sentitzen maitatuak. beraz, pertsona batek soilik azaldu duelarik inoiz maitatua ez dela sentitzen.

8. AZTERKETA KUALITATIBOA

8.1. Oinarrizko datuen inguruan

Aurreko atalean ikerketa kuantitatibotik ateratako informazioa kontrastatzen saiatu da ikertzailea ahalik eta grafiko eta taula egokienak erabiliz. Oraingo honetan, elkarrizketatik eta behaketatik ateratako inpresioei buruz mintzatuko da, azterketa kuantitatiboan egin den moduan, galdeketan erabilitako atalak mantenduko dira informazioa kontrastatzeko.

- **Elkarrizketa kopurua**

Buruturiko elkarrizketa kopuruaren inguruan aurretik adierazitakoa azpimarratu nahi da berriro ere, lehenik eta behin. Hasiera batean, kezka sortarazi duen gaia, 420 pertsonetatik 212 pertsona soilik elkarrizketu ahal izatea izan da. Saiakera bat baino gehiago egin dira, ordu eta egun desberdinetan hiru aldiz eginiko deiak, beraiekin kontaktatu ezin nuela abisatu eta beraiek deitzeko aukera ematen zuen mezua bidaltzea, kalean geratzen nindutenei egindako aipamenak... baina 92 pertsonengana iristea ezinezkoa izan da. Pertsona hauetako batzuk ikerketaren berri izan dute, baina bakoitzak bere arrazoia medio, ez dira kontaktuan jarri.

- **Elkarrizketa lekua**

Elkarrizketa gehien etxeetan burutu dira, izan ere, behaketaren bidez etxean informazio gehiago eta atal gehiagoren inguruko informazioa ateratzeko aukera dagoelako, etxearen egoera (komuna, egongela, logela...), oztopo arkitektonikoak, familiako harremanak, elkarrizketa teknikaren bidez adinekoaren espresioa, aurpegia... eta bestetik, elkarrizketatua izan den pertsonaren erosotasuna bilatu delako.

Aukera eman da etxeetan ala Gizarte Zerbitzuetan egiteko baina berdina zaiela esan duten kasuetan ikertzailea etxera gerturatuko zela adierazi zaie, batez ere alde aurretik aipaturiko behaketa egin ahal izateko. Galdetegiak orokorrean ondo joan dira, izan ere, galdetegia betetzeko prest zeudenak izan dira burutu dutenak, honenbestez den jarrera ona izan da, nahiz eta batzuk hasiera batean urduri azaldu.

Oso desberdina izan da ikertzaileak beraiei deitu dien pertsona batzuen edota beraiek ikertzaileari deitu dieten pertsonen izan duten jarrera, izan ere kontaktuan jartzearen pausua eman dutenek jada gogoia zuten galderak erantzuteko eta honenbestez, motibazioa handiagoa izan dela nabaritu da.

Aldez aurretik aipaturiko behaketa hori egiteko orokorrean ez da arazorik sumatu, etxe gehienak egoera onean aurkitu dira eta beraiek ere ez dute arazorik izan etxebizitzaren gela desberdinak erakusteko.

- **Hizkuntza**

Oinarrizko datuei dagokienez %85a euskaraz mintzatu da. Orokorrean Getarian gehien erabiltzen den hizkuntza euskara dela esango litzateke. %15ak soilik erantzun du gaztelaniaz, hauetako batzuen kasuan, euskaraz inongo arazorik gabe ulertzen dutela azaldu dute nahiz eta beraiek espresatzerako garaian zailtasunak izan. Saio batzuetan euskara eta gaztelania nahastu egin diren arren, gainontzean ez da beste hizkuntzarik erabili. Adinak eragina duela esango litzateke, gehiengoaren ama hizkuntza euskara baita eta gaztelaniaz ere badakiten arren, hirugarren hizkuntza bat ikasteko ez baitute aukerarik izan.

- **Generoa eta adina**

Generoari dagokionez, %43 gizonetakoak dira eta %57 emakumeetakoak. Adin tarte honetan emakume gehiago dago eta honenbestez, ikertutako emakumeetako adinekoak gehiago izan dira. Ordezkaritza lanetan aritu direnen ehuneko handi bat ere emakumeak izan dira.

Adinari dagokionez, elkarrizketatutako gehiengoak 73, 75, 78 eta 79 urteetakoak izan dira. Adina gora doan heinean argi dago pertsona gutxiagok parte-hartzearen arrazoa, gaur egun bizi diren adin horietako pertsona kopurua dela, hala ere 76 eta 77 urteetan jaitsiera handia izan da, kasu honetan bi arrazoi egon daitezkeelarik: interes falta edota jaiotze-tasa baxua.

- **Egoera zibila**

Egoera zibilaren esparruan, generazio honetan ohikoena ezkontzea dela baieztatu da, ezkongabeen kopurua baxua baita. Zer esanik ez banandutako pertsonena. Egundako beste familia egitura batzuk ohikoak diren arren, adineko pertsonengan oraindik ere garai bateko joera eta arau sozialak gain jartzen direla esan daiteke. Ezkontutakoaren artean asko dira alargun geratu direnak ere; ekidin ezin den zahartzaroaren helmuga baita heriotza.

Hasteko, ezagututako bikote guztiak (alargunek euren bikote izandakoarekin osatzen zituztenak barne) gizon eta emakume batek osaturikoa dela zehaztu behar da; harreman heterosexualak, hain zuzen. Azken hau ere ez da kasualitatea, egundako bikote eredu anitzagoak dauden arren; beste behin euren generazioko arau sozialak ikusgai daude. Honi lotuta, alargun geratutakoaren gehiengoak emakumeetakoak direla ikusiz, hildakoak gizonak direla konfirmatu daiteke. Normalean,

adineko pertsonen bikote erduetan, gizonezkoa emakumezkoa baina helduagoa da; hori dela eta ematen da hein batean gizonezkoen heriotza emakumezkoena baino lehen. Bestetik, gizonezkoak etxetik kanpoko lan munduan jardundakoak direnez, lan fisikoek beren osasun egoera nabarmen kaltetu dutela esan daiteke urteetan zehar. Beste ikerketa bat burutu beharko litzateke hipotesi hau baieztatu ala ezeztatzeko baina jakina dena zera da; aztergai den adineko generazio honetan gizonezkoak etxetik kanpoko ogibidetan aritu izan direla lanean eta emakumeak berriz, zaintza eta etxe barruko lanetan. Fenomeno honek bi ondorio eragin ditu beraien zahartzaroan:

1. Gizonezkoen kasuan, behin alargunduta mendekotasun handiagoa dutela frogatu da; eguneroko egitekoetan beren bizitzan zehar izan duten laguntza handia izan denez, asko ez direla behin alargunduta betekizun horiei aurre egiteko gauza. Honen adibide gisa ondorengoak jar daitezke: etxeko garbitasuna, erosketak egitea, sukaldatzea, zaintza lanak...
2. Alarguntzen dena emakumea den kasuetan ordea, orokorrean eguneroko jardueretan burujabetasun handiagoa antzeman den arren, ekonomikoki zaugarritasun egoera ohikoagoa da eta askotan, bere bikotea zen pertsonaren pentsioa jasotzen dute emakumeek, alarguntasun pentsioa, hau gizonezkoetan gutxiago ikusten delarik.

- **Elkarrizketatutako pertsonak**

Elkarrizketatutako pertsonen erreparaturik, elkarrizketetan adinekoa bera bakarrik %85an egon da, adinekoa eta ordezkaria %10 baten kasuan eta ordezkaria bakarrik %5en kasuan. Datu horien arabera esan daiteke, adinekoa bakarrik edota ordezkariarekin batera egondakoen ehunekoa gehituz gero, %95 baten kasuan adinekoa presente egon dela.

Ordezkaria soilik egon den kasuetan, gehiengo bikotea izan da (7 emakumeak izan dira, 1 aldiz gizona) eta bikote baten kasuan, alaba izan da. Kasu hauetan, adinekoa bera kalera irtenda edota berak interesik ez eta bikoteak berriz elkarrizketa egiteko interesa azaldu duelako izan da.

Ordezkaria eta adineko pertsona egon diren kasuetan, batzuetan seme-alabak, beste batzuetan bikoteak eta zaintzaileak edota iloba-bilobak egotea ere tokatu da. Honelako egoeretan laguntzailearekin egotea ohikoa izan da, izan ere, adineko pertsonak zaugarriak direla aintzat hartuta, seme-alabek ere euren laguntza eskaintzea erabat normala da. Bestetik, positibotzat jotzen dira elkarrizketetan erabiltzaile printzipala egon den kasuak; izan ere, horrela, adinekoa bera ezagutu da, bakardadearen edo maitatua sentitzearen galderak ere berak erantzutea

garrantzitsua izan da (askotan seme-alabek edota bikoteek ez baitakite nola sentitzen diren adinekoak) eta pertsonalki informazioa jasotzea ere garrantzitsua izan da.

Elkarrizketatutako pertsonekin amaitze aldera, orokorrean lehen aipatu modura, denek oso jarrera adeitsua izan dutela azpimarratu eta eskertu nahi izan du ikertzaileak. Elkarrizketak atseginak izan dira eta zapore onarekin irten da etxe gehienetatik.

8.2. Gizarte zerbitzuen inguruko datuak

- **Erabiltzaileak gizarte zerbitzuekin duten harremana**

Gizarte Zerbitzuei buruz egindako lehenengo galdera, Gizarte Zerbitzuetara inoiz joan al diren eta zertara izan da. 101 adinekok diote inoiz ez direla joan Gizarte Zerbitzuetara, 13 pertsonak diote, beraiek joan ez arren gertukoren bat joan dela eta 98 pertsonak berriz, joan direla diote. Honenbestez, azkenengo bi hauek kontuan hartuz, %52ak du Gizarte Zerbitzuei buruko informazioa. Huetatik %44a adinekoen zerbitzuei buruko informazioa jasotzera joan da, baina gogorazi behar da batzuk ingurukoentzat informazioa eskuratzera joan direla, familiakoak direla, lagunak direla...

Dependentziaren azterketa egiteko eskaera egitera joan direnak berriz %25a izan da. %17a prestazio ekonomikoen bila, hau bai benetan beraientzako prestazio ekonomikorik tokatuko ote litzaieken begiratzeko izan dela. Gainontzekoak telealarmaren bila edota beste jarduera batzuetara gerturatu dira, jubilatuen elkarterako hainbat gauza aipatzera esaterako.

Gizarte eskubideei eta gizarte babeserako sistemei buruzko informazioa, %58 batek ez dauka inolako informaziorik, erdiak baino zerbait gehiagok ez dauka inolako informaziorik. Hau kezkarria baina era berean aberasgarria izan daitekeela esan daiteke, izan ere, informazio falta, behar ezaren adierazle izan daiteke, bestela gizarte langilearekin noiz edo noiz kontaktuan jarriak egongo liritekeelako. Orain arte inolako informaziorik izan ez dutenen kasuan, ikerketa honen helburu nagusietako bat horixe izan denez, elkarrizketatutako kideen informazio galera hori konponduta geratuko da, galderak egin dizkiedan bitartean, honelako zalantzak argituak geratu baitira.

- **Proiektuaren baliagarritasuna**

Emaitzek proiektuaren baliagarritasuna frogatzen dutela esan daiteke. Goran aipatu modura, elkarrizketatutako pertsonen erdiak, bisitaren aurretik Gizarte Zerbitzuen inguruko informaziorik ez

zuten adineko pertsonak informatzeko baliagarria izan da. Eraitza ona izan da, aurrerantzean arazoei aurre egiteko udalaren baliabidea eskura eta presente izango dituztelako. Gogoan izan behar da orain arte informazio falta hori izan duten pertsona hauek bezala, datozen urteetan ere horrelako adineko gehiago egon daitezkeela eta honenbestez, urte gutxi barru berriz ere informatzea edota honelako informazio bilketa bat egitea interesgarria izango litzatekeela, hots, proiektuak jarraipena izatea garrantzitsua izango litzateke.

Informatzearekin batera, beraien galdera asko erantzuteko gai izan da ikertzailea, adineko asko Gizarte Zerbitzuetara bideratuz.

8.3. Egoera ekonomikoaren inguruko datuak

Herriko 70 urtetik gorako adineko pertsonen egoera ekonomikoa orokorrean ona dela ondorioztatu daiteke, datuek gehiengoa hilabete amaierara erraz iristen dela adierazten baitute. Noski, errealitatea hori baino konplexuagoa da, eta zenbait pertsonak zailtasunak badituzte; zailtasun hauek batez ere aisialdiaren murrizketan izan dutelarik eragina. Erabiltzaileek, euren etxebizitzan konpondu edo aldatuko lituzketen zenbait ezaugarri identifikatuta izanik, hauek burutzeko denboraldi bateko aurrezkiak xahutu behar dituztela jakinarazi dute, momentuan duten diru-iturriekin ez baitira iristen.

Aisialdiarekin gauza berbera gertatzen da, diru arazo bat edo beste izanik, lehen murrizketa bertan egiten dute. Jakina da aurrenengo mailako beharrak daudela eta erabat ulergarria dela aurrezteko asmoz aisialdiko zenbait ohitura aldatzea lehenik. Baina ezin dira honek ekar ditzaken ondorioak ahaztu. Azken batean, era xume batean planteatuta aisialdia ez al da ba lehenetasun bat? Aisialdiak harreman sozialak dakartzan eskutik helduta, eta gerora aztertuko den bakardadearen auziaren aurka beharrezko erreminta da, askok oportetara joatea edota noiz behinkako etxetik kanpoko otorduak egitea alde batera uzten baitituzte.

Ekonomikoki nahiko larri edo oso larri daudela onartu dutenak 5 pertsona izan dira. Kantitatea baxua den arren, hauei baliabideak eskaintzea eta Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa ematea beharrezkoa izan da, bertara joatera animatuz. Adinekoen %83ari inork ez dio laguntzarik ematen eta laguntza jasotzen duten horietatik ia gehienek seme-alabengandik jasotzen dutela adierazi dute.

Bestetik, adinekoak beraien ingurukoei ekonomikoki laguntzen diotenak: hauetatik 42 pertsonak seme-alabei laguntzen diote, beste 23k berriz ekonomikoki lagundu ez arren, janariarekin edota

ostatua ematen laguntzen diotela aipatu dute, honek ere ekonomikoki gastua suposatzen duelarik eta badira anai-arreba edota bilobei ere ekonomikoki laguntzen diotenak. %60ak berriz, ez dio inori laguntzen ekonomikoki, hauetako batzuk beraiek beraien diruarekin nahiko justu ibiltzen direnez, inori laguntzeko ez daudela aipatu dute; beste batzuk berriz, beraien inguruko guztiak ekonomikoki ondo daudela aipatu dute eta honenbestez, laguntzarik behar ez dutela.

Azterketa kuantitatiboan ikusi denez 155 pertsonak erretiro pentsioa kobratzen du, hauetatik %29ak alarguntasun pentsioa ere kobratzen duelarik. Jubilazio pentsioa kobratzen duten gehienak gizonezkoak dira, emakumezkoen ia bikoitza direlarik. Bestetik, 16 pertsona dira alarguntasuna soilik kobratzen dutenak (beraien pentsiorik izan gabe, kasu honetan guztiak emakumeak izanik), honen arrazoia urteetan zehar etxeko lanez eta zaintzaz arduratu direla dira. Pentsiorik ez dutenen arrazoia ere bera da, izan ere 13 emakume dira egoera honetan daudenak eta gizonaren pentsiotik bizi direnak, gizonezkoa berriz, bakarra da.

Emakumeek lan merkatutik kanpoko lanak burutzen zituzten gehienetan, diruz saritzen ez zirenak edo eta diru "beltzean" saritzen zirenak. Horrek egun pentsiorik ez jasotzera eramaten dituelarik eta egoera honekin ere lotu dezakegu SOVI deitzen zaion pentsioa ere, hau kobratzen dutenak 13 emakume direlarik; honela askok, senarra bizirik dagoen bitartean haren pentsioaren bidez biziraun behar izaten dute. Senarra hiltzean berriz, are eta eskasagoa bihurtzen den alarguntasun pentsioa jasoz. Fenomeno honek emakumeon autonomia eta ahalduntzea mugatzen du bikote harremanaren baitan (ez baitute burujabetasun ekonomikoa); eta behin alargunduta, pentsioaren murrizketa ekonomikoa dela eta, zaurgarritasun egoeran bizi ohi dira.

Badira salbuespenak bai, baina sistemaren egiturak joera orokorra hau izan dadin eragiten du. Azken batean, nola onar liteke adin hauetara iritsi eta sistema hala diseinaturik dagoelako gizonak emakumeek baino zahartzaro errazagoa nahiz erosoagoa izatea? Honek gainera, emakumeek euren bizitzan zehar buruturiko jardueren balioa eta orokorrean emakumeon duintasuna zalantzan jartzen duelarik. Aipaturikoa elkarrizketatutako emakumezko zein gizonezko askoren iritzia ere bada, haiekin izandako elkarrizketa eta ideia konparaketatik aterako pentsamendua izan delarik. Askok aipatu dute lan asko egindakoak izan direla, baina bere momentuan enpresak esaterako ez zutela kotizatzen beraien "alde" eta orain duten egoera horren ondorio dela.

8.4. Etxebizitzaren ezaugarriak

Etxebizitzak %87 kasuetan beraienak dira. Argi eta garbi azaldu duten moduan, beraiek nahikoa lan eginda erositako etxeak dira. Gutxiengo bat bizi da alokairuan, %3 soilik, urte askoren ondoren

etxez aldatu direnak izan dira kasu hauek, osasun arazoengatik gehienbat. Honi lotuta, gaur egungo egoera asko aldatu da ikertzailearen ustez, izan ere, askoz ere prekarioagoa da gizartea, geroz eta zailtasun gehiago daude etxebizitzak erosteko, prezioak geroz eta altuagoak direlako eta honez gain lan eta soldata segurtasunik ez delako. Adineko hauek lan asko egindakoak dira eta aisialdia albo batera utzita erositako etxebizitzak dituzte, baina horrek, momentu honetan ia etxebizitza gehienak ordaintzeaz amaituta egotea suposatzen du, etxebizitzaren inguruko gasturik ez izatea eragiten duelarik.

Etxe bizitza motari erreparatuz gero, %91 pisuetan bizi da. Emaidza hau hala ere aldatu egingo litzatekeela iruditzen zaio ikertzaileari 70 urtetik gorako pertsona guztiek parte-hartuz gero galdetegian, baserrietan bizi den jendearen parte-hartzea txikia izan baita. 9 pertsona bizi dira txaletetan eta 11 pertsona berriz baserrietan. Gehiengo, zonalde urbanoan bizi da, eta gutxiengo bat zonalde erdi urbanoan eta landa eremuan, guztira %8a. Kasu honetan ere, landa eremuko adinekoen parte-hartzea kontuan izan behar da. Orokorrean, adinekoei udaletxera joatea eta Gizarte Zerbitzuei buruz informatzea kosta egiten bazaie, baserrikoei oraindik eta gehiago kostatzen zaie, ikerketari dagokionez, momentuko egonkortasun egoerari gehiago begiratzen dielarik eta zailtasunik badute, familiarengana jotzea nahiago dutela diote. Azken batean, kaleko ahoz ahokoak eragin handia du horrelako kasuetan, erdigunetik kanpo bizi direnei informazio gutxiago iristen zaielarik. Honek ez du esan nahi baserritarrak kalera irteten ez direnik, baina kalean bizi direnek, gai honekiko, ikuspegi zabalago bat dutela dirudi.

Bizikidetza unitateari erreparatuz gero, 114 pertsona dira bikotearekin bizi direnak. 53 pertsona bakarrik bizi dira, hauetako asko alargunak direlarik, 15 seme-alabekin eta 10 seme-alaba, erraina edo suia eta bilobekin. Gaur egun familia ereduak anitzagoak diren arren, adineko hauen familia ereduak lehengoan oinarritzen direla ikus daiteke. Geroz eta bizikidetza mota desberdin gehiago daude eta bizikidetza unitateak ere aldatu egin dira. Adindu gehienak bizikidetza mota tradizionala mantentzen dute, lehenik seme alabekin eta ondoren bikotearekin bakarrik. Honekin loturik, orain arte 6 pertsona bizi diren arren zaintzaileekin, denbora aurrera doan heinean, kopuru hau handitu egin daitekeela aurreikusi daiteke.

Hala eta guztiz ere, nahiz eta bikotea soilik edota pertsona bakarra bizi etxe batean, asko eta askori seme-alabak edota bilobak egunero joaten zaizkie bisita edota otorduak egitera etxera, beraz, nahiz eta egun osoan ez izan, eguneko tarte handi batean familiako kideekin ere mantentzen dute harremana.

8.5. Osasun eta autonomia datuak

Osasuna erabakigarria da adinekoen bizi kalitatean. Adinak baino, osasun mailak eragin gehiago duela behatu da; erabat baldintzatzen baitu beren egunerokoa. Sarreran aipatu bezala, adinarekin bat dator osasun galera. Ondorioz, adinarekin lotutako gaitasun galera adineko guztiengan behatu da.

Datuei erreparatuz gero, %74ak osasun maila ona dutela adierazi dute. Orokorrean adinak eragindako osasun galera txikiak normaltzat jotz eta eguneroko oinarritzko jarduerak egiteko ezintasunik sentitzen ez duten heinean.

50 pertsonak hala moduzko osasun maila dutela adierazi dute, kasu hauetan, beraien egunerokoan eragiten dien gaixotasunak kontuan hartu dira, ondoren zehatzago aipatuko direnak. Osasun egoera eskasa dutenak aldiz, talde honetan gaixotasun larri edo inportante bat dutenak hartu direlarik kontuan, egoera horretan 5 pertsona aurkitu dira, zeinak horietatik ia gehienak Gizarte Zerbitzuekin harremanetan jarri diren mendekotasun edo desgaitasun laguntzak jasotzeko.

Bizi-iraupena asko luzatu da azken urteotan, gizartea gero eta zaharragoa da eta osasun aldetik ere, egoera gero eta hobea da. Esfortzu fisikoak ere eragina du honetan, gaur egun geroz eta esfortzu fisiko gutxiago egiten den arren, lehengo lan asko egiteko honetan oinarritzen baitzen jendea, orain berriz, teknologiaren erabilera dela eta, hau guztia erraztua dago.

Elkarrizketatzea lortu den adinekoen gehiengoa fisikoki aktiboa da. Gehienak ibiltzera edota paseatzera ateratzen dira egunero, batzuk moiako buelta egiten dute, beste batzuk berriz Zarautzera joan etorria; batzuk beraien gogoz egiten dute baina beste batzuk aldiz, medikuak gomendatuta. Eguraldiak ere eragiten du, izan ere, badira paseatzera joan gabe egun bat ere geratzen ez direnak, baina badira beste batzuk eguraldi txarrarekin etxean geratzea nahiago dutenak. Mendira, ehizara, baratzara edota arrantzara joaten direnak ere topatu dira, baina baita bizi guztian ekintza hauek egiteko ohitura nahiz zaletasuna izan eta hezurretako minagatik jarduera hauek egitera galarazita dutenak ere. Honez gain, yoga, bizikleta estatikoa, gimnasia... adineko askok hartzen dute kirol horietan parte. Azkenik, etxeko lanak eta etxe nahiz beste espazio batzuen mantenuan oinarritzen direnak ere badira, izaten duten erritmoa dela eta kirol bezala hartzen dutelarik.

Ariketa fisikoa egiteaz gain, harreman sozialak sustatzeko ere balio du kirolak, izan ere, gehienak ibiltzera lagunekin edota bikotean joaten dira. Goian aipaturiko beste ekintzak aldiz leku itxietan

burutzen dituzte, baina ondoren kafea hartzeko aprobetxatzen dutenez, harreman sozialak ere lantzen dituzte.

Fisikoki aktiboak ez direnetatik gehienek ezin dutelako dela esan dute, 40 pertsonak zehazki esateko, hau da, gaixotasunek eragindako sintomak uzten ez dietelako. Hezurretako gaixotasunak edota hezurretako mina dira adindu gehienek jasaten dituzten gaixotasunak. Kaderakoa, belaunetakoa, bizkarrekoa...Lehen aipatu modura, baserrian, lanean eta beraien egunerokoan hainbeste lan fisikoa egitearen ondorioak dira horietako asko. Interesgarria da aipatzea nahiz eta hezurretako mina izan, askori medikuak ariketa fisikoa egitea gomendatzen dietela, geroz eta gehiago gelditzen joanez gero eta gero eta zailagoa delako berriz mugitzen hastea. Protesien kasuetan ere, medikuak segituan agintzen die ibiltzen hasteko.

Badira gogo faltagatik edota kirola egitea inoiz gustatu ez zaien pertsonak ere, hauen kasuan, ez da jarduera fisikoa egitearen beharrik ikusi, bestela, nik izan ezean medikuak ere egoera baloratuko lukeelako, ariketa fisikoa egitera animatuz. Talde txiki hau 10 pertsonakoa izan da eta bestetik, badira Covid19-aren pandemiak beldurtuta, lehen kirola egiten zuten esparruetara itzuli ez diren 5 pertsona ere.

Orokorrean elkarrizketako momentuan ariketa fisikoa egiteko gai ez diren pertsonak operazioen bat edo min puntualak direla eta topatu direnak, aktibo moduan baloratu dira, izan ere, egoera berezi batek eragindako egoerak direla uste da.

Galera fisikorik ez dutela esan dute 56 pertsonak, galera psikologikorik ez dutela berriz 168 pertsonak esan dute, hots, ia %80ak. Honen arrazoiak bi izan daitezke, osasun mentaleko arazoak identifikatzen ez dakizkigula edota gizarte mailan dagoen osasun mentalaren gaineko estigmak, hauek ditugula aitortzea galarazten digutela. Hala ere, 8 pertsonak esan dute Covid19-aren ondoren eragina igerrri dutela psikologikoki, baita tristura sentitzen dutenak edota diagnostikatutako gaixotasun edo nahaste mentalen bat dutenak ere.

Autonomiari dagokionez, orokorrean denak ondo moldatzen dira eguneroko jardueretan. Ondoen moldatzen diren jarduerak medikazioa hartzea eta telefonoa erabiltzea izan dira, honetarako mugimendu askorik ez baita behar. Hala ere, medikazioa hartzeko laguntza behar dutenak ahaztu egiten zaiolako izaten da, telefonoa erabiltzeko laguntza behar dutenak aldiz, entzumen galeraren bat dutelako izan ohi da normalean.

Gaizkien moldatzen diren jarduera, erosketak egitea izango litzateke, honek mugimendu asko eta pisua garraiatzea dakarkielako. Etxeko lanetan aldiz, egiteko gai diren arren, batzuetan jarduera zehatzak egiteko zailtasunak izaten dituzte: goiko armairuak garbitzean edota etxeko garbiketa

sakona egitean esaterako. Bestetik, etxeko lanen kasuan gai izatea eta jarduerak burutzearen arteko desberdintasuna azpimarratu nahi da, izan ere, etxe askotan nahiz eta gizonezkoa gai izan jarduera asko egiteko, emakumezkoak egin ohi ditu jarduera asko. Honekin aipatu oraindik ere etxeko lanetan jarduten duen gehiengoa emakumezkoa dela, lehengo genero arteko egin beharren desberdintasunekin jarraituz.

Garraioaren erabilerari buruz galdetzean, askok jada ez dutela kotxerik erabiltzen aipatu didate, hala ere, hori aipatu eta segituan ea kotxean sartu, atera... egiteko gai izaten den galdetu zaie eta horren erantzuna izan da erregistratu dena. Hala ere, askok kotxea erabili beharrean autobusean moldatzen direla eta alderantziz esan dute. Egia da, gizonezkoak direla oraindik kotxea erabiltzen duten horietako gehiengoa, emakumezkoek berriz, gehiago erabiltzen dutelarik garraio publikoa eta bestetik, asko dira baita seme-alabekin alde batera eta bestera kotxean mugitzen direnak ere.

Eguneroko jardueretan laguntza bat edo beste behar duten pertsonak 47 izan dira (%22), batzuek etxerako lanetarako, beste batzuek berriz, egunaren zati zehatz baterako eta gutxi batzuk, 7 pertsonak, egun osorako. Hauen laguntza sostengu hori nor den galdetu zaie eta 7 hauetatik 3k kontratatutako pertsona bat dute laguntzaile gisa, gainontzekoek aldiz, familiakoak dituzte (biek seme-alabak, batek arreba eta beste batek berriz, erraina).

Baliabide materialak erabiltzen dituztenak asko dira, esaterako, gehien erabiltzen dituztenak ohe artikuluak eta bainugelako osagarriak izaten dira, batzuetan jada behar dituztelako, beste batzuetan berriz, beharrak aurreikusi eta erosketak edota obrak egitera animatu dira. Gutxien erabili dituztenak berriz, gurpildun aulkiak edota komunikazio tresnak izan dira. Bestetik, aipagarria izan da larrialdi botoia adineko askok zutela eta ez zuten batzuei ere informazioa eskaini zaiela eta gainera, sei pertsona inguruk eskaera egiteko interesa adierazi dutela informazioa jaso bezain laster. Bastoiaren erabilerari dagokionez berriz, 51 pertsonak bastoia erabiltzen dutela dioten arren, honen arrazoia ez da edozein momentuetan behar dutela, baizik eta Getaria bezalako herri batean gora eta behera ibiltzeko, aldapetarako nahiz eskaileretarako laguntza behar izaten dutela.

8.6. Harreman sozialaren eta bakardadearen inguruko datuak

Bakardade egoera askotan harreman sozialarekin lotuta dagoen arren, beste askotan, bikotekidearen faltarekin ere lotuta egoten da, izan ere, adineko askok inguruko jendea badute baina haiek diotenez, inor ez beraien bikotekidea izan den haren hutsunea betetzeko. Galdera honen aurrean, adineko batzuk galdetu dute ea galdera hau soilik bakarrik bizi direnei bideratua izan den. Ikertzailearen erantzuna ezezkoa izan da, izan ere, bada jendea bikotekidearekin edota

familiakoekin bizi dena eta hala ere bakarrik sentitzen dena, bakardadea batzuetan objetiboa den arren, beste batzuetan beste arrazoi nagusi batzuk egoten baitira eta eremu guztiak kontuan hartu nahi izan dira. Bestetik, galdera hau egin ondoren, batzuk beste herritarrekin enpatizatzea lortu dute, beraiek duten zortea ikusiz eta bakarrik sentitzen diren jendearen lekuan jarritz.

53 pertsona dira bakarrik bizi direnak eta hauetako batzuk bakarrik sentitzen ez diren arren, batzuetan edo beti bakarrik sentitzen direnak guztira 63 dira. 114 berriz bikotekidearekin bizi da eta askotan, nahiz eta biak bakarrik bizi, gainontzeko familiakoak ere egunero edo behintzat astero izaten dituzte inguruan. Hemen ikusten da bikotekideekin bizi diren arren asko, bietako bat falta denean batzuek bakarrik bizitzen jarraitzea pentsatzen duten arren, beste batzuk seme-alabekin edota baita bilobekin bizitzera ere pasatzen direla.

Bakardadea eta harreman sozialak neurtzeko garaian, familiarekiko harremana eta familiaz kanpoko sare soziala neurtu da, baita elkarrekin egoten diren maiztasuna eta telefonozko harremana ere.

Galdera hauek egitean, egoera ekonomikoaren gaiarekin bezala, adinekoek barrera moduko bat jarri dute. Familiarekin zer moduzko harremana duten galdetu denean, gehienek segituan erantzun dute “ona” dela, nahiz eta gorputz espresioarekin beste ikuspegi bat adierazi duten. Kanpoko sare soziala duten galdetzean aldiz lasaiago erantzun dute gutxiago egoten direla edo ez dutela hainbesteko harremanik. Honenbestez, galdera honekin jasotako sententzia familia arteko harremanek askotan lotsa puntua ematen dutela izan da, familiaratean gertatzen dena bertan geratuz. Hala ere, etxeko familia ez den horien kontuak eta haiekin dituzten esateko lotsa gutxiagoa izan da. Egia da zaila egiten dela familiakoekin harremanik ez dagoela adieraztea. Datuen arabera, %97ak familiako kideekin harreman ona duela adierazi du, eta horietatik %68ak egunero egoten direla beraiekin, telefonozko arreta harremana berriz %67ak du.

Lagunen kasuan, %82ak azaldu du lagunak badituela, baina ondoren beraiekiko harremanaren datuei erreparatuz gero, %40a egoten da egunero lagunekin, hauetako asko kafea hartzeko edota ibiltzeko elkartzeko direlarik. Astero elkartzeko direnak berriz %32 izaten dira eta %12a aldiz hileroko. Telefono/ordenagailu bidez zenbat aldiz egoten diren galdetu zaienean, orokorrean familiarekin gehiago hitz egiten dutela konturatu garen arren, %25ak gutxienez *WhatsApp* aplikazioaren bidez egunero hitz egiten dutela dio, %31ak berriz astero. Lagunekin aldiz, dagoeneko planak eginda izaten dituzte, esan nahi da, asteroko pintxopotea, asteroko elkartzeko afaria, eguneroko kafea, hileroko afaria... horrelako elkartzeko datak eta guneak dagoeneko zehaztuta izaten dituztenez eta

kalean ere etengabe ikusten direnez, ez dute hainbesteko beharrik telefonoz hitz egiteko beraz, "behar denean" aste eta egun guztiak ezberdinak izanik da adineko askoren erantzuna.

204 pertsonen sostengu nagusia familia da. Eguneroko arazo ala beharren aurrean laguntzen dituzten inor ba al duten, arazoen inguruan hitz egiten ote duten, kasurik egiten ote dieten, kezkatzen ote diren... galdetu zaienean, baietz erantzun lehenengo eta ondoren baietz uste dutela behintzat erantzun dutenak ere asko izan dira. Honekin ondorioztatu da, oraindik ere laguntzarik behar izan ez dutenen kasuan, seme-alaben laguntza izatea espero dutela izan da, baina orain arte horrelako kasurik izan ez duten arren, ezin dutela baieztatu esan dute, zalantzak adieraziz.

Azterketa kuantitatiboan, bakardadea eta harreman sozialen atalean txertaturiko taulak azaltzen duen moduan, aisialdian burutzen dituzten ekintzak asko dira eta denak desberdinak. Atal honetan aipagarria izan da egoera hauetan 19 pertsonak telebistara jotzen dutela jakitea, izan ere, denbora pasatzeko modu erraza da eta horrengatik, askok horretara jotzen du. Beste 12 pertsonak berriz, bakardade egoerari aurre egiteko kalera irtetzen direla aipatu dute, hau jendearekin egoteko beharrezkin lotu dezakegarrik, jendea ikusi, haizea hartu, ekintza desberdinak egin...

Beste batzuk berriz, beraien bizitzan horrenbeste jendekin egon eta hainbat jarduera egin ondoren, orain bakarrik egoteko gogoia izaten dutela ere aipatzen dute, hala ere, hau esaten duten asko normalean, familiaren eta inguruko laguntza asko dutenak izaten direlarik, hots, inguruko babes handia dutenak.

Orokorrean %30ek bakarrik sentitzen dela adierazi du eta %2ak beti bakarrik sentitzen direla. Bakardade objektiboa adierazi dute %30 horietatik %25ek, bakarrik daudenean (objektiboki) sentitzen direla bakarrik, %44ak etxean daudenean eta %29k berriz, gauez.

Garrantzitsua da atal honetan alargunei erreferentzia egitea. Alargun batzuk azaldu dute momentuan bakarrik sentitzen ez diren arren, bikotekidea galdu izan duten momentuan bakardade hori handia izan dela eta orain berriz, ikasi egin dutela bakarrik bizitzen eta falta bilatu arren, bakardade sentsazioa ez dutela sentitzen diote. Bestetik, alarguntasunak eragindako bakardade objektiboarekin topatzen direnei berriz, onartu eta hutsune horri aurre eginaz gustura bizitzea lortzeak dolu eta egokitze prozesuen bizipena suposatzen die.

Bakardade sentimendua erretiratzean sentitu dutenak ere badaude, hainbeste urtean egunerokotasun eta errutina bat izan eta egun batetik bestera zer egin ez jakiteak sorrarazitakoa. Baina hau ere ezin dela gaixotasun modura hartu, izan ere, beste era batera bizitzen ikastea baita soluzioa, eta gehienek lortzen dutena.

Beste kasuren batzuk ere izan dira, esaterako, bakarrik sentitzen ez direla esan eta egun guztia etxean pasatzen dutenak. Kasu hauetan, eguna okupatuta izaten dutela eta ondo moldatzen direla esan dute.

Orokorrean adineko pertsonak konpainian bizitzea eskertzen dutela antzeman da. Egia da baina, betidanik bakarrik bizi izan direnek edo aspaldian bakarrik bizitzen ohitu direnek bakardade objektibo hori eskertzen dutela kasu askotan; lasaitasunarekin eta askatasunarekin lotzen baitute. Hala ere badira galdetegia burutzeko momentua ere, konpainia gisa hartu eta eskertu dutenak ere.

Familia harreman oso estuak topatu dira, estu eta funtzionalak. Ez da familia gatazkatsurik aurkitu, nahiz eta bi kasutan seme-alabaren batekin arazoren bat dutela esan duten. Jakina da ez dela familia bakoitzaren azterketa integral sakona egin, bakoitzak izango dituela bere indargune eta ahuleziak eta baita, kontaktu ez dituzten eta honenbestez jakin ezin izan diren kontuak ere. Baina datuek adierazten dutenez adinekoak oso maiz egoten dira familiakoekin kontaktuan aurrez aurre zein telefono bidez. Adin guztietan da garrantzitsua lehen mailako harreman lotura egonkor eta osasuntsua izatea. Baina egia da adin batzuetan pertsona zaurgarriagoa dela besteetan baino, haurtzaroa eta nerabezaroa kasu. Zahartzaroa ere aipatutako bi adin aroen zerrendara batu daiteke, eta beraz familia harremanen kalitateak garrantzi berezia du kasu hauetan.

Familiaz haratago, kanpo harreman sozialekin duten harremana oso desberdina da. Berriro ere gehiengoak era honetako harremanak badituela argitu du. Kasu honetan baina, halakorik ez dutela aitortu digutenak ere badaude. Era berean, harremana orokorrean ez da horren estua, kontaktua maitasun gutxiagorekin ematen delarik.

Ikertzailearen ustetan familiaz kanpoko harremanak izateak asko aberasten du pertsona. Objektiboki baieztatu daitekeena ondorengo da; lagunarteko harremanek adinekoa etxetik ateratzea bultzatzen dutela gehienetan. Baita bizikidetzaren unitatean daukan rolaz haratago bere identitate pertsonala garatzen laguntze duela ere; zalantzarik gabe bi arrazoioek pisuzkoak dira.

Azterketa kuantitatiboan bezala, "Maitatua sentitzen al zara?" galderarekin amaitzen da atal hau, izan ere, galdera honek ikerketan aztertutako hainbat ideia eta azpi atal barnebiltzen dituelako, hain zuzen ere, maitatua sentitzeak, berarekin dakarrelako maitatua sentituz gero inguruan jendea izatea laguntzeko, autonomia, bakardade zein egunerokotasuneko arazoen aurrean bizitzari aurre egiteko sostengua den familia zein familiaz kanpoko sare soziala euskarri modura izateak hain zuzen ere.

Amaitzeko, ea udalari zer eskatuko zioten galdetzean erantzunak desberdinak izan dira. Horietako bat taxi-zerbitzuarena izan da, ordu zehatz batzuetan adineko hauei medikuarengana esaterako

gerturatzeko zerbitzua; bestetik, obrak egitean, gurpildun aulkien egoera kontuan izan eta koska guztiak kentzea izan da beste aipamen bat; adinekoentzat ere aisialdirako espazio bat izatea interesgarria izango dela dioenik ere izan da eta hauetako batzuei bazegoela aipatzean, eremu hau oso irisgarria ez dela aipatu dute.

9. ONDORIOAK

Ondorioak lantzen hasi aurretik, ikerketarako formulatutako hipotesiak baieztatu ala ezeztatu egin diren konprobatuko dira. Behin hau egin ondoren, ikerketaren inguruko ondorio orokor batzuekin emango zaio amaiera lanari, azken ondorio hauetan barnebilduko direlarik ikerketa honetatik ateratako konklusio eta emaitzak.

9.1. Hipotesien lanketa

Hipotesien baieztatzea ala ezeztatzea ikerketatik ateratako datuen arabera izango da, hau da, elkarrizketatutako eta ikerketan parte hartu nahi izan ez duten edota iristea lortzerik izan ez den pertsonen erlazioaren artekoa.

Lehenengo hipotesia, “Getariako 70 urtetik gorako adinekoen gehiengoak ez du Gizarte Zerbitzuekin harremanik” ez da baieztatzen, erdia baino gutxiago baita, %48a, Gizarte Zerbitzuekin harremanik izan ez duena, nahiz eta harremana izan duten asko galdera zehatzekin zuzendu den Gizarte Zerbitzuetara eta honenbestez, informazio askorik ez duen.

Bigarrena, Gizarte Zerbitzuen ingurukoa hau ere, “Getariako 70 urtetik gorako adinekoek ez dute Gizarte Zerbitzuen jardueraren inguruko informaziorik”. Hipotesi hau aldiz baieztatu egiten da, izan ere, elkarrizketatutako pertsonen %58ak ez duela inolako informaziorik ondorioztatu delako eta beste %36 batek ez duelako informaziorik prestazio ekonomikoen aurrean.

Hirugarren hipotesia, egoera ekonomikoari erreferentzia egiten diona, “Getariako 70 urtetik gorako adinekoak gastu ekonomikoei aurre egiteko gai dira” baieztatu egiten da. Datu hauek guztiz objetiboak ez direla gogoan hartu behar den arren, etxebizitzako diru-sarrerak kontuan hartuz hilabete amaierara erraz iristen direla adierazi du adinduen %74ak.

Hurrengo hipotesia, autonomiari zuzendutakoa hain zuzen ere, “Getariako 70 urtetik gorako adinekoek zailtasunak dituzte beren egunerokotasunean bakarrik moldatzeko” jasotako datuek hau ez dela horrela frogatzen dute. Eguneroko bizimoduko betekizunetarako beste pertsona baten

laguntza behar ote duten galdetu zaienean, %78ak ezezkoa erantzun duen arren, baiezkoa esan duten askok egunean jarduera jakin batzuetarako soilik behar baitute (garbiketa txikia, kalera irteteko laguntza...).

Etxebizitzaren egoera eta oztopo arkitektonikoei lotutako hipotesia, "Getariako 70 urtetik gorako adinekoen etxebizitzak ez daude beren beharretara egokituta" kasu honetan, etxebizitzaren gehiengoak beharretara egokituta daude, izan ere, ikerketan ateratako datuek %63ak ez dutela arkitektura oztoporik adierazi dutelako eta bestalde, gehiengoaren etxeko bizitzeko baldintzak egokiak direlako. Ekipamenduari dagokionez, ia - ia guztiek beharrezko guztia dute.

Seigarren hipotesia, "Getariako 70 urtetik gorako adinekoen osasun maila ona da batzuetan" baieztatu egiten da, datuek gizabanakoaren %74ak osasun maila ona duela adierazten baitute, beti ere, adinak berarekin dakartzan eraginak kontua izan gabe.

Sare sozialari dagokionez, honen inguruan planteaturiko hipotesia "Getariako 70 urtetik gorako adinekoak asebeteta sentitzen dira duten sare sozialarekin" baieztatu egiten da, izan ere, %82ak familiak kanpoko sare soziala duela adierazi baitu, horietatik %40 egunero egoten delarik kontaktu zuzenean eta %32 berriz astero.

Azkeneko hipotesiak, bakardadeari egiten dio erreferentzia "Bakardade subjektiboa Getariako 70 urtetik gorako adinekoen gutxiengoak baino ez du sentitzen" adierazten du, eta hau ere baieztatu egiten dela esan daiteke, %28ak soilik adierazi dutelako batzuetan bakarrik sentitzen dela, aldi berean %70ak inoiz ez duela sentimendu hori izan azaldu duten bitartean.

9.2. Ondorio nagusiak

Aldez aurretik aipatu modura, proiektuaren prestaketari dagokionez, behin lagin definitiboa zehaztu ondoren, erroldatik atera ziren datuak, bertan zeuden telefonoak erabiliz beraiekin kontaktuan jartzeko. Telefonorik hartzen ez zuten edota jada telefonoa erabilgarri ez zuten pertsonen zenbakiak lortzeak ere lan handia eman zuen, erroldan eguneratu gabe baitzeuden asko. Hau horrela izanik, zaila izan da pertsona guztiengana iristea, baina zorionez laginaren kopuru handi batengana iristea lortu da, 420 pertsonatik 328k gure berri izan baitute, nahiz eta gero 116 arrazoi desberdinengatik parte-hartzera ez animatu, interesik ez zutelako esaterako.

Telefonorik ez zegoen pertsona horiengana iristeko berriz, bigarren mezu bat bidali zitzaien beraien kontakturik ez zegoela abisatzen eta galderak erantzutera animatuz gero, ikertzailearekin kontaktuan jartzeko aukera emanez. Bigarren mezuaren erantzuna ere oso aberasgarria izan da, izan ere adineko asko zai baitzeuden. Kasu honetan argi ikusi dugu jendearengana hurbiltzen saiatu eta jendeak Gizarte Zerbitzuei buruzko interesa adierazi duela. Hau ere, elkarrizketa egin ondoren beraiek egindako galderetan nabarmendu da.

Esan bezala, elkarrizketen ondoren edota galderak egin diren bitartean beraiek ere galdetzeko aukera izan dute eta galdera horietan ere oso nabarmena izan da Gizarte Zerbitzuen gainean dagoen informazio falta.

Egoera ekonomikoari dagokionez berriz, deigarriena genero desberdintasuna izan da, izugarritzko desberdintasunak baitaude pentsioetan; batez ere, jubilazio pentsioa kobratzen duten horietan, gizonezkoak ia bikoitzak baitira; bestetik, baita orokorrean alarguntasuna (soilik edota jubilazio pentsioarekin nahiz SOVIarekin) kobratzen duten horiengan, ehuneko handi bat emakumea baita. Bestetik, ondorio gisa atera da zailtasunak dituzten hauek beraien beharrak lehentasunez sailkatzen dituztela eta honenbestez, lehenik murrizketak egiten dituzten esparrua aisialdia izaten dela. Hala ere esan beharra dago ekonomiari dagokionez Getarian orokorrean adinekoen bizi baldintzak onak direla.

Jarraian, aipagarria izan da nahiz eta kalean adineko asko zaintzaileekin ikusi, elkarrizketa egin diegun adinekoetatik 6 pertsona soilik bizi direla zaintzailearekin, bakarrik bizi diren adinekoen kopurua berriz handia da, nahiz eta egunerokotasunean ia etxe guztietan familiartekoren bat edo beste egoten den.

Etxebizitzaren datuei dagokienez, diru-sarreraren galderan bezala, kasu honetan ere erantzunak ez dira guztiz objetiboak izan, emaitza hauek elkarrizketatutakoaren iritziak izan baitira eta hezetasunak

edo argitasun falta errazago identifikatu dituzten bezala, logela guztiak eta ia bainugela guztiak egoera onean zeudela esan dute.

Bestetik, garbi geratu da Getarian dagoen oztopo arkitektoniko handiena etxeetara iristeko eskailerak direla, kopuru handi batek aipatu baitu oztopo hau, batzuek ez dutelako igogailurik etxeetara iristeko, beste batzuk berriz igogailua duten arren, bertara iristeko eskailerak dituztelako.

Osasunari dagokionez orokorrean Getariako 70 urtetik gorako pertsonen osasun ona dute. Batzuetan, lotsagatik, arazo fisikoak aipatzeko zailtasunak izan dituzten arren, orokorrean gai izan dira gertatzen zaien hori aitortzeko. Hala ere, osasun ona dute, gehienak moian oinez ibiltzen direla aipatu dutelarik. Arazo psikologikoetan berriz datuak biltzea ez da hain erraza izan, kasu batzuetan ez dutelako identifikatzen jakin, beste batzuetan berriz, estigma handia dagoelako oraindik gai honen inguruan eta honenbestez, nahiago izan dute ez aipatzea edota galera ekiditea, “gu ondo gaude” erantzun bortitza emanez.

Egunerokotasunean egiten diren ekintzetan oinarritzen zen galdera ere ez da oso objetiboa izan, izan ere adineko askok gai izatea eta egitea nahastu dituzte. Erantzun askotan garbi ikusi da gizonezkoa hainbat jarduera egiteko gai zen arren, emakumeak burutzen dituela jarduera hauek. Emakumearen kasuan berriz, bakarrik bizi diren askoren kasua izan da egunerokotasuneko garbitasuna egiteko gai direla, baina garbiketa sakon bat egiteko laguntza behar dutela esatea.

Egoitzari buruz egin den galderan, ea Getarian egoitza nahiko luketen edo ez, batzuek galdera ondo ulertu duten arren, beste batzuk egoitza egonez gero, ea bertara joango lirateken galdetzen zitzaiela ulertu dute eta horregatik izan da, ikertzailearen ustez, egoitzara joan nahi ez dutenen kopurua hain handia. Baietz esan duten ia guztiak aldiz azpimarratu dute interesgarria zein beharrezkoa izango litzatekeela egoitza bat Getarian, nahiz eta zaila ikusten duten. Honez gain, badira egoitza zein tokitan jarriko luketen esatera ere animatu direnak, Kofradia zaharrean eta Jesuiten etxean jarriko zutela aipatuz.

Harremanei buruzko zatian ere, erantzun bortitz batzuk jaso dira familiarreko harremanei buruz galdetzean, erantzun gehienak harreman onaren aldekoak izan direlarik. Lagun arteko harremanei galdetzean berriz, erantzunak lasaiagoak izan dira, bat baino gehiagok aitortu duelarik harreman mota hau ez izatea.

Aisialdiari dagokionez berriz, lehen aipatu den bezala, Getariako adineko gehienak ibili edo paseatu egiten dute, ia guztiak moian. Getariarekin lotzen duen beste aisialdi mota bat txibitara, itsasora edota lapetara joaten diren haiena izan daiteke, herrian dagoen itsasora joateko zaletasuna aipatuz. Bestetik, irakurketak edota telebistak ere pertsona askoren aisialdia okupatzen

duela ikusi da, esaterako, lehen ez zegoen aniztasuna izan daiteke honen arrazoia, liburu eta gai desberdinetako irakurketak egiteko aukera edota telebistan dagoen aukera anitza.

Harremanez gain, laguntza behar duten ia guztietan jasotzen dutela aipatzen dute edota beraien ustez, oraindik gertatu ez den arren, hala izango zela, ia kasu guztietan familiara joko luketela aipatuz. Honen arrazoia, bizi garen herria txikia dela izan daiteke eta honenbestez, familiarakoak gertu bizi direla eta harremana ere gertukoa dela. Honezgain, lotura izan dezake herri honek urte askotan zehar izan duen familiarako harremanarekin, arrantzako herria izanik eta itsasontzi asko familiarakoak izanik, eguneroko bizitza elkarrekin egin baita, bai itsas-gizonak elkarrekin, baina herrian geratzen ziren emakume askok ere.

Bakardadea izan da elkarrizketa honekin jakin nahi zen beste informazioetako bat, izan ere bakarrik sentitzen diren pertsonak elkarrizketatutakoak erdira iristen ez diren arren, kopuru handia da batzuetan bakarrik sentitzen direnak, askok beraien bikotekideen hutsunearekin edota familia handia izatetik poliki-poliki bakarrik bizitzera pasatzearekin lotu dutelarik.

Ea maitatuak sentitzen ziren galdetzean, nahiz eta gehienek amaierako erantzuna baietz izan den, hasiera batean “baietz usten dut” edota “hori besteei galdetu beharko zaie” esan dute. Galdera berriz egin eta beraien pertzepzioa zein zen galdetzean ia guztiek maitatuak sentitzen direla esan dute, nahiz eta gutxi batzuei beraien gorputz espresioan hori guztiz egia ez zela nabaritu.

Amaitzeko, ea bakardadearen inguruan udalari zerbait eskatuko lieken galdetzean, askok bakardadearen inguruan aipatzeko ezer ez dutela esan dute, hala ere beste hainbat gauza iruzkindu nahi zituztela aipatu dute, honek bakardadearen inguruan dagoen beharra ere hain handia ez dela erakusten digularik, baina izan daiteke baita egoera horietan zer eskatu ez dakitelako ere.

10. ERANSKINAK

10.1. Erabiltzaileei bidalitako gutuna



Getariako Udala

Jaun/andere hori:

Getariako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako sailak Getarian bizi zareten adinekoen beharrak ezagutzeko konpromisoa hartu du eta ikerketa bati ekingo dio. 70 urtetik gorako herritarrengana joko dugu zuen bizi baldintzak ezagutu eta udalak dituen laguntza desberdinetara bideratzeko.

Horrenbestez, urriaren 4tik aurrera, Maddalen Iraola Larrañaga (Gizarte Zerbitzuetako langilea) zuekin harremanetan jarriko da, telefonoz, hitzordua ezartzeko. Ondoren zuen etxera joango da behar bezala akreditatuta.

Elkarrizketak 15 minutu inguruko iraupena izango du eta bertan jasotako erantzunak sekretupean gordeko dira. Beraz, zure datuak zein inkestan jasotako erantzunak konfidentzialak eta isilpekoak izango dira, modu anonimoan jasoak. Era berean, arrazoi desberdinak direla medio, inkesta Gizarte Zerbitzuetan bertan bete nahi duenari horretarako aukera emango zaio.

Edozein zalantza baduzu deitu lasai honako telefono honetara: 688841537. Bertan, behar dituzun argibide guztiak emango dizkizugu.

Besterik gabe, zure laguntzagarik eskerrak emanez, jaso ezazu gure agurrik beroena.

Getarian, 2021eko irailaren 19an

GIZARTE ZERBITZUETAKO BATZORDEBURUA



Getariako Udala

Estimado/a señor/a:

El departamento de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Getaria se ha comprometido a conocer las necesidades de las personas mayores que residen en el municipio, iniciando así una investigación. Nos dirigimos a los mayores de 70 años con el objetivo de conocer la situación social en la que viven e informarles acerca de las diversas prestaciones que ofrece el ayuntamiento.

Por consiguiente, a partir del próximo 4 de octubre, Maddalen Iraola Larrañaga (trabajadora de los Servicios Sociales) se pondrá en contacto por teléfono para acordar una cita. Se presentará en su domicilio debidamente acreditada con el fin de realizar una entrevista.

La visita tendrá una duración aproximada de unos 15 minutos. La información recogida en ella será totalmente confidencial. Cabe la posibilidad de realizar la entrevista en el propio departamento de Servicios Sociales para las personas que, por diferentes motivos, así lo prefieran.

Ante cualquier duda, puede llamar a este número de teléfono: 688841537. Allí, se le ofrecerá la información que precise.

Muchas gracias por su colaboración. Un cordial saludo.

En Getaria, el 19 de septiembre de 2021

PRESIDENTA DEL DEP. SERVICIOS SOCIALES

10.2. Galdetegia



Getariako Udala

IKERKETA- GALDETEGIA

KONTROL-DATUAK Zk:

EGUNA:

URTEA:

HILABETEA:

IRAUPENA:

ELKARRIZKETA LEKUA:

HIZKUNTZA:

I. DATU PERTSONALAK

1. Elkarrizketatua:
 - Adinekoa
 - Ordezkaria / Laguntzailea
 - Adinekoa eta ordezkaria
2. Sexua:
 - Emakumea
 - Gizona
 - Besterik
3. Adina: _____

4. Egoera zibila:

- Ezkondua
- Ezkongabea
- Alarguna
- Banandua

II.GIZARTE ZERBITZUAK

5. Inoiz jo duzue Gizarte Zerbitzuetara?

- Bai
- Ez (7.galderara joan)
- Pertsonalki ez, baina familiako kideren bat bai: seme-alabak, iloba...

6. Zertara?

- Adinekoentzako zerbitzuei buruz informatzera.
- Telealarma eskaera egitera.
- Dependentsia balorazioa egitera.
- Prestazio ekonomikoen inguruko informazioa jasotzera.
- Besterik: _____

7. Gizarte eskubideei eta gizarte babeserako sistemei buruzko informazioa nolakoa dela esango zenuke? (Gizarte langileak betetzeko)

- Informazio egokia eta nahikoa du prestazio ekonomikoen inguruan
- Ez dauka nahikoa informazio prestazio ekonomikoen inguruan
- Ez dauka inolako informaziorik prestazio ekonomikoen inguruan

III. EGOERA EKONOMIKOA/PRESTAZIOAK

8. Zeintzuk dira zure/ zuen diru-iturriak?

- Lan soldata
- Lan babestua
- Alarguntasun pentsioa
- Ezgaitasun pentsioa
- Jubilazio pentsioa
- Pentsiorik gabe
- SOVI
- Besterik: _____

9. Etxebizitzako diru-sarrerak kontuan hartuz, nola moldatzen zarete hilaren amaierara iristeko?

- Erraz
- Nahikoa larri
- Zailtasun batzuekin
- Ez gara iristen

10. Joan den urtean, hurrenez hurren azaldutako arazorik izan duzun markatu:

EGOERAK		BAI	TARTEKA	EZ
Etxeko mantenua	Ura ordaintzeko arazoak			
	Gasa ordaintzeko arazoak			
	Argia ordaintzeko arazoak			
	Etxeko aseguruia ordaintzeko arazoak			
	Etxeko kontribuzioa ordaintzeko arazoak			
Hipoteka edo bestelako mailegu bat ordaintzeko arazoak				
Alokairuaren ordainketa egiteko arazoak				
Altzariak edo tresna elektrikoak erosteko zailtasunak				
Konponketak eta instalazioak ordaintzeko zailtasunak				
Oinarrizko beharrianak asetzeko arazoak	Elikadura			
	Higiene pertsonala			
	Jantzi eta oinetakoak			
	Botikak			
Zorrak kitatzeko arazoak				
Aisialdirako gastuak gutxitu beharra				
Lagun / bizilagun / familiari laguntza ekonomikoa eskatu beharra				

11. Jasotzen duzu inoren laguntza ekonomikorik hilabete amaierara iritsi zaitezten?
- Bai. Seme-alabek
 - Bai. Anai-arrebek
 - Ez
 - Besterik: _____
12. Ematen al diozu laguntza ekonomikorik familiako inori hila amaierara iristeko dituen zailtasunak direla-eta?
- Bai. Ahizpa / Anaia / Neba / Arrebari
 - Bai. Seme-alabei
 - Bai. Ilobei
 - Bai. Bilobei
 - Beste norbaiti
 - Ez
 - Dirurik eman ez baina elikagaiak eta etxean mantendu bai.

IV. ETXEBIZITZA EZAUGARRIAK

13. Etxebizitza:
- Norberarena da
 - Familiako batena / Utzitakoa
 - Alokairuan bizi da
14. Etxebizitza mota:
- Pisua
 - Baserria
 - Txaleta
15. Zer zonaldetan dago kokatua?
- Zonalde urbanoan
 - Zonalde erdi-urbanoan
 - Landa-eremuan

16. Norekin bizi zara? Bizikidetzaren unitatea.

Hurrenkera Zbk.	Sexua	Adina	Harremana /ahaidetasun mota
1			
2			
3			
4			

17. Etxebizitzaren bizitzeko baldintzak

	EGOKIA	NOLA HALAKOA	EZ EGOKIA
Etxeko argitasuna (argi naturala)			
Azpiegituren egoera: hezetasuna, itukinak..			
Instalazio elektrikoa: berogailua, argia..			
Bainugelaren egoera			
Logelaren egoera			

18. Arkitektura oztopoak

- Ez dago oztoporik (20ra)
- Oztopoak daude

19. Zein?

OZTOPO ARKITEKTONIKOAK		Bai/ Ez
Barnekoak	Eskailerak	
	Igogailua	
	Korridorea	
	Ohearen egokitasuna	
	Komuna (dutxa edo bainera)	
	Besterik	
Kanpokoak	Eskailerak	
	Koskak	

20. Etxebizitzaren ekipamendua. Zerbaiten beharra sumatzen duzu etxean?

- Oinarrizko / Beharrezko guztia du
- Zenbait gauza falta dira edo hondatuta daude
- Ez ditu oinarrizko gauzak. _____

V. OSASUNA ETA AUTONOMIA

21. Norbanakoaren osasun maila

- Ona
- Erdi bidekoa
- Eskasa

22. Fisikoki aktiboa al zara? Astean zenbat aldiz egiten duzu jarduera bakoitza?

- Bai,
 - o Baratzara joan
 - o Igeriketa
 - o Areto-dantza
 - o Besterik: _____
- Ez, zergatik? _____

23. Osasun egoerari dagokionez, zermoduz sentitzen zara?

- Fisikoki:
- Psikologikoki:

24. Nola moldatzen zara eguneroko jarduera hauetan?

	ONDO	HALA-NOLA	GAIZKI
Janaria prestatzen			
Higiene pertsonalean			
Etxeko lanetan: ohea, garbitasuna			
Ekonomiaren kudeaketan			
Medikazioa hartzen			
Erosketak egiten			
Telefonoa erabiltzen			
Garraiobideen erabileran (autoa, autobusa)			

25. Eguneroko bizimoduko betekizunetarako beste pertsona baten laguntza behar al duzu?

- Bai
- Ez (29ra)

26. Jasotzen al duzu beste pertsona baten laguntzarik?

- Formala
- Informala
- Ez

27. Noren laguntza jasotzen duzu?

- Senar/emaztea
- Kontratutako pertsona
- Seme/alabak
- Bizilagunena
- Ilobak/ Bilobak
- Besterik: _____

28. Egunean zenbat denborako laguntza izaten duzu?

- Gau eta egun
- Egunez 5-8 ordu
- Gaez bakarrik
- Astean 1 ordu
- Egun osoa (24 ordu)
- Astean 2-3 ordu
- Egunez 1 ordu
- Astean 3-5 ordu
- Egunez 2-3 ordu
- Astean 5-8 ordu
- Egunez 3-5 ordu
- Ez dut laguntza beharrik

29. Eguneroko bizimoduko betekizunetarako baliabide material bat edo besteren laguntza behar al duzu?

- Ezer ez
- Bainugelako osagarriak
- Gurpildun aulkia
- Komunikaziorako tresnak
- Bastoi/makulu /taka-taka
- Larrialdietarako botoia
- Ohe artikulatuak
- Besterik: _____

30. Gustatuko al litzaizuke Getarian zahar egoitza edo egoitza bat izatea?

- Ez
- Bai.

VI. HARREMAN SOZIALAK ETA BAKARDADEA

31. Nola definituko zenuke familiarekin duzun harremana?
- Ona
 - Erdi bidekoa
 - Txarra
 - Ez dut familiarik (33ra)
32. Zenbat aldiz egoten zara familiarekin kontaktu zuzenean?
- Egunero
 - Hilabetero
 - Besterik
 - Astero
 - Urtero
33. Zenbat aldiz egoten zara familiarekin telefono/ordenagailu bidez?
- Egunero
 - Hilabetero
 - Besterik
 - Astero
 - Urtero
34. Familiaz kanpoko sare soziala ba al duzu?
- Bai
 - Zer edo zer
 - Ez (36ra)
35. Zenbat aldiz egoten zara haiekin kontaktu zuzenean?
- Egunero
 - Hilabetero
 - Besterik
 - Astero
 - Urtero
36. Zenbat aldiz egoten zara haiekin telefono/ordenagailu bidez?
- Egunero
 - Hilabetero
 - Besterik
 - Astero
 - Urtero
37. Zer egin ohi duzu zure aisialdian? Elkarteko bazkide, kiroldegia, tailerrak...
38. Eguneroko arazo ala beharren aurrean, ba al duzu laguntzen zaituen inor?
- Beti
 - Batzutan
 - Inoiz

39. Zein da zure sostengu nagusia?
- Familiak
 - Zaintzaileak /zaintzaileek
 - Lagunak /lagunek
 - Besterik: _____
40. Eguneroko arazoengatik inguruan hitz egiteko inor ba al duzu?
- Beti
 - Batzuetan
 - Inoiz
41. Zuregatik kezkatzen diren pertsonak daudela uste al duzu?
- Beti
 - Batzuetan
 - Inoiz
42. Kaso egiten dizutela sentitzen duzu?
- Beti
 - Batzuetan
 - Inoiz
43. Bakarrik sentitzen al zara (triste/goibel)?
- Beti
 - Batzuetan
 - Inoiz (45era)
44. Zein momentutan sentitzen zara bakarrik?
- Gauez
 - Kezka batek abodaten nauenean
 - Asteburuetan
 - Gaixo nagoenean
 - Bakarrik egotean (objektiboki)
 - Ospakizun baten aurrean
 - Besterik
 - Kanean nagoenean
 - Etxean nagoenean
45. Maitatua sentitzen al zara?
- Beti
 - Batzuetan
 - Inoiz
46. Zenbat denbora egiten duzu inorekin hitz egin gabe? (egun 1, 2, aste 1...)

47. Zer egiten duzu bakardade horren aurrean?

√

Ezer ere ez	
Kalera irten	
TV ikusi, interneta	
Telefono deiak, korreoak, SMS, Whatsapp etab.	
Zinera joan, ikuskizunak ikusi, irakurri, musika, irratia	
Edan, erre, medikamentuan kontsumitu, sustantziak hartu	
Lagun edo familia kideekin batu	
Lan egin, okupatua mantenduko nauen zerbait egin	
Tabernara joan	
Errezatu, elizara joan	
Paseatu, kirola egin	
Erosketak egitera atera	
Medikuarenera, psikologoarenera joan	
Hilerrira joan	
Besterik? _____	

48. Ba al da bakardade egoera aldatu dadin Getariako udalari eskatuko zenioken baliabide ala prestaziorik?

- Ez
- Bai
- Zein? _____

10.3. Kontaktatu ezin genituen erabiltzaileei bidalitako mezua



Getariako Udala

Kaixo,

Maddalen Iraola Larrañaga naiz eta orain dela gutxi Udaletik bidali genizuen idatzian jartzen zuen bezala, Getariako 70 urtetik gorako pertsonen galdera batzuk egiten nabil. Hori dela eta, etxeetara deika egon naizen arren, zure/zuena etxeko zenbakirik ezin izan dut lortu (udaletxean ez dutelako edota dagoen zenbakia ez datorrelako zuenarekin bat).

Horrenbestez, zuekin kontaktuan jartzeko modu bakarra, zuri nire zenbakia eman eta zuk niri deitzea izango litzateke.

Galdetegian parte-hartzeko prest bazaude, mesedez deitu 688841537 zenbakira.

Mila esker eta laster arte.

Kaixo,

Soy Maddalen Iraola Larrañaga y como decía en el escrito que hace poco os enviamos desde el Ayuntamiento, estoy haciendo unas preguntas a las personas mayores de 70 años de Getaria. Por ello, a pesar de que he estado llamando a los domicilios, no he podido contactar contigo, bien porque en el Ayuntamiento no consta tu nº de teléfono o porque el que consta es erróneo.

Por lo tanto, la única manera de ponernos en contacto sería que me llamaras al número que a continuación te facilito.

Si estás dispuesto a tomar parte en el cuestionario, llámame al 688841537.

Gracias y hasta pronto.

Getarian, 2021eko urriaren 15ean

Maddalen Iraola Larrañaga

